ASTELEHENEKO
# Goienkaria

Goiena 10 URTE · www.goiena.net · TOKIKOM

2010eko maiatzaren 17a > Astelehena > VII. urtea > 277. zenbakia > 1,10 euro

"Politikoki asko erabili diren gaiak dira beldurra eta segurtasun falta"



**Pedro Fraile** Lleidako Unibertsitateko irakaslea > 8

**G2a** Mozarten opera ezagunenak guztiondako > 29

**BERGARA** Udalak itxi egingo du azaroan Gazte Informazio bulegoa > 11

**KIROLA** Yerai Varela eta Mari Sol Ramos Otala Zelain azkarrenak > 21

**KULTURA** Bergarako Musika Eskolak urte osoko lana erakutsi zuen> 30

**OSASUNA** > OSAKIDETZAREN ERABAKIA

# Hilaren 29ra arte egingo dute lan zapatuetan anbulatorioetan

**MURRIZKETAK** Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako osasun guneak itxiko dituzte zapatuetan

**DEBAGOIENEKO OSPITALERA** Herri horietako erabiltzaileek Arrasatera joan beharko dute zerbitzua jasotzera

**INFORMAZIO FALTA** Oñatiko eta Arrasateko alkateak haserre daude, besteak beste, prentsan jaso dutelako horren berri



**50. URTEURRENA** Eguraldi txarrari aurpegi ona. Halaxe dio esaerak, eta Atzegikoen 50. urteurren bazkarian halaxe egin zuten. JOSETXO ARANTZABAL

## Atzegiko kideak Oñatin elkartu ziren zapatuan

Debagoieneko Atzegiko kideak Oñatin elkartu ziren zapatuan. Eguerdian herriko plazan elkartu eta Santa Ana antzokian Elkarteko ordezkarien eta Oñatiko alkatearen hitzen ondotik, Atzegiren ibilbidearen gaineko filma ikusi zuten; elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten.

Bazkaltzerako orduan, berriz, 140 lagun batu ziren Zubikoako kiroldegian. > 12

**POLITIKA** > ELKARTASUNA

## Elkororen aldeko deia, eguenean

'Jose Luis Elkoro Libre' plataforma sortzeko batuko dira eguenean > 06

**ERLIJIOA** > IGOKUNDE MEZA

## Munilla gotzainari harrera ona

Gipuzkoako gotzain Jose Inazio Munillak igokunde meza ospatu zuen domeka eguerdian, jendez bete zen Bergarako Santa Marina elizan.

"Juan Kruz nirekin eramatearren harrika beharrean muxuka hartu naute, harrera oso ona egin didate", adierazi zion GOIENAri gotzainak. > 06

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39







| EGUNA | ORDUA | LEKUA | TITULUAK |
|---|---|---|---|
| apirilak 29 (osteguna) | 18:00 | Aula 5001 | • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak<br>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa<br>• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua |
| maiatzak 22 (larunbata) | 11:00 | Aula 5001 | • Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa<br>• Industri Ekipoaren Mantenimendua |


EUSKAL HERRIA aurkezten du
aldizkariak
Mundumira
Antzuola - DEBAGOIENA
munduko kulturen festa
Malabaracirco, Tiritirantes, Oihulari Klown, azokak, umeen gunea,
herriko trikitixa eta txistulariak, mendi igoerak, diaporamak...
OJOS DE BRUJO (Catalunya)
GANGBÉ BRASS BAND (Benin)
GOSE (Eh)
THOMSO (Senegal)
KLAK!SON (Antzuola)
GIRASONS (Auditori de Barcelona)
TACUMAH REGGAE BAND (Eh)
BAIÄO BRASIL (Brasil)
RUMBA VELLA (Catalunya)
Euskadiko BOULDER Txapelketa
902 181 471
www.mundumirafesta.com
Antolatzaileak:
EUSKAL HERRIA
902 181 471
www.euskalherria-aldizkaria.com
gintonic producciones
www.gintonicmusic.com
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
TURISMO
Babesle nagusiak:
euskaltel
gozatueuskaltel.com
TERNUA
kutxa
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Babesleak:
Obra Social
Fundación "la Caixa"
euskadi
ULMA
GARAIA
ekar
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Kolaboratzaileak:
agua ura ALZOLA
PEPSI
AMSTEL
inguru
radio euskadi
Goiena
leitzaran

**OSASUNA** > OSAKIDETZAREN ERABAKIA

# Hilaren 29ra arte egingo dute lan zapatuetan anbulatorioetan

**ARRASATEKO OSPITALERA** Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak itxiko dituzte; zerbitzua Arrasateko ospitalean zentralizatuko dute

**BERGARAN ALDAKETARIK EZ** Bergaran etengabeko arretako gunea izaten jarraituko dute eta, hortaz, orain arte moduan funtzionatuko du

**INFORMAZIO FALTA** Oñatiko eta Arrasateko alkateak haserre daude; Lourdes Idoiagak, esaterako, esan du prentsaren bidez izan zuela horren berri

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Ekainetik aurrera zapatuetan ez da zerbitzurik emango Debagoieneko anbulatorioetan. Leintz bailarako (Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) osasun-guneetako arduradun Clemente Domingok ASTELEHENEKO GOIENKARIA-ri baieztatu dio maiatzaren 29an, zapatua, egongo direla azkenekoz zabalik.

Osakidetzak hartu berri duen erabaki horrekin Debagoieneko herri bakoitza nola geratuko den jakin gura izan dugu. Hala, Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati eta Arrasateko anbulatorioak itxita egongo dira; orain arte 09:00etatik 14:00etara eman dute zerbitzua zapatuetan. Bergaran (bergarar, antzuolar eta elgetarrendako zerbitzua ematen duena), berriz, etengabeko arretako gunea dute eta orain arte bezala funtzionatzen jarraituko du; hori indartzeko asmoa dute gainera. Medikuaz, erizainak eta pertsonal administratiboaz osatuta dago gune hori.

Esandako itxierek herritarrengan eragina izango dute. Dena dela, Domingok debagoiendarrak lasaitu gura izan ditu: "Lanean gaude eta oraindik ez dago ezer itxita. Argi daukaguna da Arrasateko ospitaleko eta Bergarako etengabeko arretako guneko kalitateko asistentzia bermatuko dugula".



Aretxabaletako osasun-gunea ere itxiko dute zapatu goizetan. MIRIAN BITERI

**ARRASATEKO OSPITALERA**

Osakidetzaren arabera, esandako neurria zapatu goizetan osasun-guneetan eskaintzen den zerbitzuak duen osasun-pertsonal gabeziatik dator. Bere garaian, Arrasaten, Oñatin eta Leintz bailarako osasun-guneetako ordutegia handitu zuten, astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, eguerdira arte. Profesional falta batetik, eta bestetik anbulatoriora joan beharrean, zuzenean ospitalera joateko ohitura dagoela. Hala, Arrasateko ospitaleko larrialdi zerbitzuan zentralizatzea eta hori indartzea erabaki dute Osakidetzakoek.

**943 46 11 11 TELEFONORA DEITU**

Gauzak horrela, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñatiko herritarrak autoz mugitu beharko dira aurrerantzean. Hori, dena dela, batzuetan ekidin ahal izan dute Osakidetzako larrialdietarako telefonora deituta; 943 46 11 11 zenbakira, hain justu. Leintz bailarako arduradunaren esanetan, "telefonoaren beste aldean dagoenari erabiltzaileak ematen dizkion datuen arabera, behar diren bitartekoak jarriko dira eta lehenengo diagnosia egingo da; osasun-pertsonala dago zerbitzu horretan. Horiek zer bide jarraitu behar duten jakinaraziko diete erabiltzaileei. Jendeak, normalean, 112 zenbakira deitzen du, ikasteko samurragoa delako; baina, telefono zuzena esandako hori da".

Clementerekin hitz egiteaz gain, Osakidetzako prentsa bulegokoekin ere egon gara. Aipatu dute egunotan udalekin harremanetan dabiltzala. Aldiz, Arrasateko alkate Ino Galparsorok Osakidetzak esandakoa gezurtatu du, eta aditzera eman du berarekin inor ez dela kontu horren gainean harremanetan jarri, oraingoz.

**PRENTSAREN BIDEZ**

Bestalde, Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga oso kritikoa izan da Osakidetzaren jarrerarekin. Salatu du prentsaren bidez izan zutela horren berri, orain dela hamar bat egun: "Zuzenean deitu nuen Gipuzkoako Mendebaldeko zuzendaritzara; gugana etortzeko asmoa zuela esan zidaten". Joan den eguazten goizean batzartu zen zuzendariarekin eta baieztatu zion Oñatiko anbulatorioa ixteko asmoa dutela.

Idoiagak esan digu "sutan" dagoela, erabakia hartzerakoan ez dituztelako udalak kontuan izan. Alkatearen arabera, "neurri hori bitartekoen arrazionalizazioa dela-eta hartzen dutela esan zidan; krisiari aurre egiteko eta gastua murrizteko. Ziurtatu zidan, era berean, osasun-kalitatean ez duela inongo eraginik izango".

ESANAK

**"Ospitaleko eta Bergarako etengabeko arreta-guneko kalitate asistentzia bermatuko dugu"**

**Clemente Domingo** > Leintzeko osasun guneetako arduraduna

**"Ospitalera joaten garen bakoitzean, agian bospasei ordu pasa beharko ditugu han; hori ez da zerbitzua hobetzea"**

**Lourdes Idoiaga** > Oñatiko alkatea

Alkateak erantzun zion horrelako neurria hartu aurretik anbulatorio bakoitzak duen eskaera aztertu beharra dutela: "Ondo ikus dezaket, zapatu goizean, Gasteizen, Aranbizkarrako anbulatorioak ixten baldin badituzte, gertu dutelako ospitalea. Bat nator gastua murriztu behar dela, baina kendu behar da gehien dagoen tokietan, ez gutxien daukagun tokietan. Oñatin asko borrokatu behar izan genuen zapatu goizean anbulatorioa zabalik izateko eta orain honekin etortzen dira. Ezin dut onartu. Ez dakit noraino iritsiko garen, baina nik esan nion ez daukadala arazorik Osakidetzako zuzendari orokorrarengana edo sailburuarengana joateko".

**OSPITALEA, JENDEZ LEPO**

Azken horrekin kezkatuta agertu da Oñatiko alkatea: "Denok ospitalera joan beharko dugu; neurri honekin oraindik jende gehiago egongo da han eta joaten garen bakoitzean, agian bospasei ordu pasa beharko ditugu han. Hori ez da zerbitzua hobetzea. Hurbileko zerbitzuak mantendu behar direla iruditzen zait".

**EUDELEN BATZARRA BIHAR**

Osakidetzaren erabakiaren aurrean, udalak mugitzen hasi dira. Horren harira, Idoiagak jakinarazi digu bihar, martitzena, Eudelek batzarra duela neurri hori aztertzeko.



Parkea inauguratu eta jarraian joan ziren umeak rokodromoa eta kulunkak probatzera. JOSETXO ARANTZABAL

**AISIALDIA** >ARANTZAZU GUZTIONTZAT PROIEKTUA

# Gune propioa dute umeek Arantzazun

Haur parkea inauguratu zuten zapatuan, Gandiaga topaguneko eraikinaren ondoan; txikiendako rokodromoa du eremua berriak

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Hitzordua zapatuan, 11:00etan, jarrita zegoen. Gandiaga topagunea eraikinaren kanpoko frontoian, Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur Fundazioak egindako haur parkea eta rokodromoaren inaugurazioa egitekoak ziren ordu horretan.

Eguraldiak larregi laguntzen ez bazuen ere, apurka hasi zen azpiegitura berrian jendea batzen. Zain zituzten ordurako Adiskideak elkarteko Iñaki Beristain, Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga eta Arantzazuko frantziskotarren buru Joxe Mari Arregi. Beristain izan zen hitza hartzen lehena. Arantzazu gizarteratzeko egiten ari diren lana gogorarazi zuen. Aipatu zuen aspaldiko asmoa zela ingurune horretan txikiendako aisialdi gunea jartzea, umeek ere "harrera gozo eta ona" izan dezaten han.

**120 METRO KARRATUKO AZALERA**

Haurrendako parke horrek 120 metro koadroko azalera du, eta bi kulunka, txirrista bat, karrusel-multzoa, hainbat malguki eta metro eta erdiko altuerako eta 6 metroko zabalerako rokodromo txikia ditu; azken horrek 54 helduleku ditu. Gune guztia, gainera, kautxuzko zoruarekin estalita dago.

Beristainen ostean, Lourdes Idoiagaren txanda iritsi zen. Nabarmendu zuen hemendik aurrera umeek "gune propioa" izango dutela Arantzazun, eta esan zuen zapatuko inaugurazioarekin "garai berriari" eman diotela ongi etorria: "Arantzazuko Adiskideak eta Arantzazu Gaur Fundazioa 2007an antolatu zenean, frantziskotarrak, Diputazioa, Mondragon korporazioa, Kutxa eta Oñatiko Udala hasi ziren proiektatzen 500 urtetik gora duen Arantzazuko historia zelan bultzatu. Etika, turismo edo naturarekin lotutako ekimenak daude, eta umeendako parkearekin, horrek beste dinamika batean sartzen da. Aurrerako proiekzioa da".

**HELDUENDAKO PASEALEKUA**

Oñatiko alkateak gogorarazi zuen, horren harira, bestelako aisialdi proiektuak martxan jarriko dituztela laster; esaterako, helduendako pasealekua. Azpimarratu zuen, azkenik, Euskal Herrirako "erreferente" bilakatzen ari dela Arantzazu. Inaugurazio ekitaldia amaitu aurretik, Joxe Mari Arregik otoitz egin zuten eta gune berria bedeinkatu zuen.

Jarraian, Gandiaga topagunera sartu ziren guztiak. Han gertu zuten txokolate beroa, gazta eta ardo beltza. Nagusiek mokadutxoa hartzen zuten bitartean, etxeko txikienak ezin hobeto ibili ziren, egun horretarako gertatutako jokoetan parte hartzen. Jaialdia eguerdi partera arte luzatu zen.

**POLITIKA** > MOBILIZAZIOAK

# Jon Agirre aska dezatela eskatu zuten bere jaioterrian

Herriko kaleetatik manifestazioa egin zuten eta jarraian, ekitaldia izan zen; presoen eta bereziki aramaioarraren egoera salatu zuten horretan




*Ion Agirre etxera* pankartak zabaltzen zuen manifestazioa. M.B.

**M.B.** > ARAMAIO

Jon Agirre presoaren egoera salatzeko manifestazioa egin zuten joan den zapatu arratsaldean, Aramaion. Debagoieneko gainerako herrietako jendea batu zuen mobilizazio horretan, 200 lagun inguruk parte hartu zuten.

Manifestazioa plazatik irten zen, *Ion Agirre etxera* eta *29 urte kartzelan* zioten pankarten atzean. Herriko kaleak zeharkatu ostean, ekitalditxoa egin zuten. Presoek eta bereziki, Agirrek bizi duen egoera salatu zuten horretan. Jarraian, aramaioarraren bizitzaren gaineko errepasoa egin zuten, irudien bidez; Suñan jaio zenetik gaur arte. Horren harira, orain arte ezagutu dituen kartzelak eta dituen gaitzak gogorarazi zituzten.

Senideek ere ekitaldian parte hartu zuten. Dantzariek aurreskua dantzatu zuten horien aurrean eta lore sorta ere jaso zuten.

**'SALBUESPENAREN ADIBIDE'**

Ekitaldian, Agirre Euskal Herriak bizi duen "salbuespen egoeraren adibidea" dela salatu zuten, gaixotasun larriak dituen arren, 92 artikulua ukatu diotelako; eta 2011ko maiatzaren 3ra arte luzatu diotelako zigorra, 30 urteak osotasunean bete arte.

> HEZKUNTZA

## Mondragon Unibertsitateak hitzaldi informatiboak egingo ditu bihar eta etzi Oñatin eta Donostian

Mondragon Unibertsitateak (MU) bi hitzaldi antolatu ditu datozen egunotan. Bihar, martitzena, *Enpresa Zuzendaritza MBA master ofiziala* izeneko hitzaldi informatiboa eskainiko du, 18:00etan, Oñatiko Enpresagintza fakultatean. Bigarren mintzaldia, *MBA Executive* delakoa, Gipuzkoako Merkataritza Ganberan egingo dute, Donostian. Etzi, hilak 19, izango da, 18:00etan. Bestalde, unibertsitateak ate irekiekin dihardu. Asteon, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan egingo dute. Eguenean, 17:30ean, hasiko da fakultatea ezagutzeko bisita.

professional learning space
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Gaur egungo enpresaren beharretara egokituta dagoen Mondragon Unibertsitatearen eskaintza praktikoa eta berritzailea ezagutu ezazu.
ENPRESA ZUZENDARITZA MBA MASTER OFIZIALA
INFORMAZIO HITZALDIA: MAIATZAK 18 asteartea, 18:00.
Oñatiko Campusa.
MBA EXECUTIVE
INFORMAZIO HITZALDIA: MAIATZAK 19 asteazkena, 18:00.
Gipuzkoako Merkataritza Ganbera, Donostia.
Tel. 943 71 80 09 / postgrado@eteo.mondragon.edu
www.mondragon.edu/empresariales



Patxi Kortabarria, Antzuolako Udaleko kultura zinegotzia. JOSETXO ARANTZABAL

**Patxi Kortabarria** > Antzuolako zinegotzia

# "Eskertzekoa da herritarren laguntza; 160 bat lagun izango gara Mundumiran lanean"

**EDU MENDIBIL** > ANTZUOLA

**Antzuolako herria gertu dago maiatzaren 29an eta 30ean Mundumira jaialdia jasotzeko. Udalak egindako deialdiari primeran erantzun diote herritarrek eta 160 boluntario inguruk jardungo dute lanean dena ondo ateratzeko. Ez da erronka makala esku artean dutena. Udaleko kultura zinegotzi Patxi Olabarriarekin egin dugu berba.**

**Zer moduz doaz antolaketa lanak?**

Gero eta jende gehiago gabiltza eta eskertzekoa da herritarren laguntza. Urtarrilean hasi ginen, Mundumira antolatuko genuela jakin bezain pronto, eta ordutik Gin Tonic produktora eta *Euskal Herria* aldizkariko jendearekin elkarlanean ibili gara. Hiru lantalde egin ditugu eta azken gauzak lotzen gabiltza. Gaur [astelehena], esaterako, trafikoko lantaldearen bilera izango da.

**Zenbat jende ari da kolaboratzen aipatutako lan taldeotan?**

Trafikoarena da jendetsuena; 120 bat lagun ibiliko dira, hiru orduko txandatan. Trafiko kontuak aztertzeko iaz Eskoriatzan ospatutako Mundumira antolatu zutenekin ere izan gara, gabeziak eta zer hobetu beharra zegoen ikusteko. Besteak beste, Eusko Jaurlaritza, Diputazioa eta Ertzaintzako ordezkariekin bildu izan gara, trafikoarena delako beharbada buruhauste nagusia Mundumirari begira. Horrez gain, zaborra, komunak eta horrelakoak gestionatzeko beste lantalde bat dago eta, azkenik, kultura lantalde moduko bat ere egin dugu, egubakoitzean, herritarrondako zerbait antolatzeko. Guztira, 160 lagun inguru izango gara lanean. Boluntario lana egiteko gertu daudenek udaletxera deitu (943 76 62 46) edo *kultura@antzuola.net* helbidera idatz dezakete.

**Trafikoari dagokionez, behin eta berriz azpimarratzen zabiltzate jendeak autobusa erabil dezala.**

Bergaratik edo Urretxu aldetik trafikoa ia erabat murriztuko da eta Pesarekin lanean ari gara Mundumirako asteburuan autobus zerbitzua indartzeko. Bergaran Labegaraietan izango da autoak uzteko aukera eta Urretxun, hango industrialdean. Herria *itxi* egingo da nolabait autoen trafikorako eta hustu ere bai; herritarrek aukera izango dute Goizperreko aparkalekuan autoak uzteko. Elayko aparkalekua, berriz, Mundumiran parte hartuko duten artisauek eta abarrek erabiliko dute; 100 bat autorendako lekua dago.

> **"Urtarrilean hasi ginen prestaketa lanetan, Mundumira antolatuko genuela jakin bezain laster"**
>
> **"Herria itxi egingo da nolabait autoen trafikorako; onena, autobusa erabiltzea"**

**Jaialdian zein gune izango diren zehaztuta daukazue?**

Eskolako patioan izango da eszenatoki nagusia eta Zurrategin gobernuz kanpoko erakundeak eta mendiarekin lotutako ekintzak kokatuko dira. Kioskoa, berriz, kale animazioko taldeek erabiliko dute eta horrez gain plazan 16 postu izango dira (munduko jakiak eta abar); Buztinzurin 29 (artisauenak gehienak); eta Kalebarren inguruan beste 14 postu, baserritarrenak (tartean antzuolarrenak eta Aierratik etorriko diren lau postu).

**Lehen aipatu duzu egubakoitzean herritarrei zuzendutako ekitaldiak izango direla.**

Bai, plazan jarritako postuak aprobetxatuta, afari herrikoia izango da, kantu afari moduko bat, munduko jakien postuetan; aurretik Benta Zaharreko Mutiko Alaiak taldea izango da giroa alaitzen. Bestalde, Mundumiran txosna jarriko dute Oinarinek, Antzuola KEk, Anelkarrek eta gaztetxeak, Eguzki auzoan. Gaztetxekoak ibili dira *akuilu* lana egiten. Peña Ayastuyk ere mendi bizikleta ibilaldia antolatuko du, zapatuan.

**etxeko leihotik**



**Ubane Madera** > arrasate@goiena.com

## Kapilasmoa muturretan lehertu arte, aurrera!

Pentsiodunak haserre; funtzionarioak haserre; ama izan gura dutenak haserre; politikariak haserre… Eta, jakina, gainerako herritar guztiak beldurrak airean, guri tokatuko zaigunaren zain. Horixe da momentuz Zapaterok lortu duena gastua murrizteko aplikatu gura dituen neurriekin. Gehien entzuten den komentarioa, berriz: "Eta aberatsek eta krisia eragin dutenek zer, noiz ordainduko dute horiek eta zenbat?" Lankide batek esan zuen politikariak politikari direla, eta halako neurriak ere hartuko dituela Zapateroren Gobernuak, baina eurei komeni zaienean, hau da, euren kalkulu politikoak egin ostean (badakizue, boto gehiago zela, euren jokabidea hala).

> **"Kapitalak agintzen duen artean, badakizue zeinek dauzkan galtzekoak"**

Argi dudan bakarra da zerbait egin beharra zegoela, laster, gainera. A, baina inuzentea ni! Krisia kapitalak, kapitalistek eta kapitalismoaren funtzionamenduak eragindakoa dela ikusita (guztiok ikusi dugu), sistemaren aldaketa, edo berregituraketa espero nuen. Ja ez. Ez, behintzat, sistema muturretan lehertzen ez zaigun artean. Eta kapitalak agintzen duen artean, badakizue zeinek dauzkan galtzekoak, ezta?

Baina batez ere amorratzen nauena da Gerardo Diaz Ferran (Espainiako enpresarien ordezkaria, CEOE) bezalakoak ikustea esaten zer egin beharko genukeen egoera konpontzeko berarenak diren/ziren Air Comet eta Marsans bezalako enpresekin egin duena egin ostean.

**> Greba deitu dute CCOO eta UGT sindikatuek ekainaren 2rako; ondo dago protesta egitea bidezkoak ez diren kontuengatik, baina greba eginez zerbait konponduko ote da? Herritarrok alternatibak behar ditugu, alternatiba praktikoak.**

**> Europaren funtzionamendua agerian geratu da: estatu edo nazio bakoitzak bereari begiratzen dio eta egoera ekonomikoa arrisku bizian ikusi arte orain artekoari eusten ahalegindu dira. Non geratu da, bada, Maastricheko itunaren izaera?**

**IKERKUNTZA** > BEY WATCH PROIEKTUA

## Fagor Etxetresnak saritu du Europako Batzordeak

Informazio teknologiak ondoen aplikatu dituen proiektu bategatik

**E.M.** > BERGARA

Fagor Etxetresnak lantegiak parte hartzen duen Bey Watch proiektuari *Best ICT for Energy Efficiency Award* delako saria eman dio Europako Batzordeak. Hain zuzen ere, sariaren helburua zera da: komunikazio teknologien alorrean enpresen ikerkuntza bultzatzea, energia eraginkortasuna indartzeko eta merkatuan erabilerak topatzeko. 40 proiektu aurkeztu dira sariketara eta epaimahaiaren ustez Bey Watch izan da komunikazio eta informazio teknologiak ondoen aplikatu dituena.

**KONTSUMO BAXUA**

Fagor Etxetresnak lantegiari dagokionez, kontsumo gutxiagoko etxetresnak diseinatzen hartu du parte. Telefonica I+G da Bey Watch proiektuko liderra eta beste hainbat enpresarekin ari dira elkarlanean.

**ERLIJIOA** > GOTZAINAREN BISITA

# Munilla: "Harrika beharrean, muxuka hartu naute; oso harrera ona egin didate"

Gipuzkoako gotzain Jose Inazio Munillak igokunde meza ospatu zuen atzo eguerdian Bergarako Santa Marina elizan



Jose Inazio Munilla gotzaina atzo, Bergarako Santa Marina elizan. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Bergarako Santa Marina eliza bete egin zen atzo, domeka, eguerdian. Lehen jaunartzeak eta Santa Marina eta San Pedroko hildakoen urteurrenak izan zituzten; baina, horretaz gain, ez ohiko bisitaria ere bazegoen han: Jose Inazio Munilla gotzaina, hain justu ere.

GOIENAri egindako adierazpenetan, gotzainak aipatu zuen oso meza "polita" izan zela eta "asko disfrutatu" zuela; jaunartzea egin zuten 19 neska-mutikoak izan zituen gogoan.Gipuzkoako Pastoraltzako bikario berria Juan Kruz Mendizabal *Kakux*-en lana ere txalotu zuen. Horren harira, Munillak bergararren jarrera eskertu zuen: "Nahiz eta sakrifizioa eskatu, harrika hartu beharrean, muxuka hartu naute. Oso harrera ona egin didate".

Mezan aurpegi ezagunak ikusi zituela ere esan zuen; Zumagarran parroko lanak egin zituenean, Bergara aldeko jendea ezagutu zuela gogorarazi zuen.

San Pedro parrokiak berritzeko duen beharraz ere hitz egin zuen: "Guztiei laguntza eskatu diet, gotzaingotik ahalegin guztiak egingo ditugula esan diet".

FEDEDUNEN IRITZIA



**Alicia Marcos**
Bergara

"Mezara etorri naiz Jose Inazio Munilla izan delako. Meza oso ondo eta gotzaina ere ondo egon dela iruditzen zait. Gustuko dut Bergaran ikustea; hurrengo bisitaren zain geratzen naiz".



**Juan Manuel Gauna**
Bergara

"Munilla aurretik ezagutzen nuen nik. Emazteak Zumarragarekin lotua estua du eta handik ezagutzen nuen. Ez gara etorri bera hemen zegoelako, gertuko baten urteurrena zelako baizik".



**Iñaki Agirrezabal**
Bergara

"Jaunartze bat ikustera etorri naiz. Kasualitatea izan da gotzaina hemen egotea. Munilla ez dut gustuko, atzera doalako. Ni gehiago noa *Kakux*-en ideiekin, ume eta gazteekin duen jarrerarekin".



**Maria Matilla**
Bergara

"Domeketan mezara joateko ohitura dut; baina Santa Marinara etorri beharrean, San Pedrora joaten naiz, hangoa naizelako. Munilla etorri behar zela jakin dut eta etorri naiz".

**BERGARA** > ELKOROREKIN ELKARTASUNA

# 'Jose Luis Elkoro Libre' plataforma sortzeko deialdia

Herritar guztiei zabaldu diete deialdia; eguenean, maiatzaren 20an, bilera irekia izango da Bergarako kultura etxean, 19:00etan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Jose Luis Elkoro Bergarako alkate ohiaren askatasuna lortzeko helburuarekin, *Jose Luis Elkoro Libre* plataforma sortzeko deialdia egin dute. Hain zuzen ere, Elkororen egoerarekin arduratutako guztiei eguenean kultura etxean egingo den bileran parte hartzeko dei egin diete. Hitzordua 19:00etan da. Besteak beste, Elkororen askatasuna lortzeko egin daitezkeen ekimenak aztertuko dituzte. Horretarako jendearen iritzia eta iniziatiba batzea



Jose Luis Elkoro. ARTXIBOA

ezinbestekoa jotzen dute Elkororen lagunek. Era berean, Elkorori elkartasuna eramatea izango da plataformaren beste helburuetako bat. Jose Luis Elkorok 75 urte ditu eta Bergarako alkatea izan zen, 1976an lehenbizi eta 1987-1991 agintaldian ondoren. Trantsizioko urteetan protagonismo berezia izan zuen Bergarako Alkateen Taldean. Espainiako gobernuaren interlokutorea bilakatu zen alkate abertzaleen talde hura.

Bergarako udaletxean 1979. urtetik zinegotzi izandakoek Elkororen aldeko plataforma aurkeztu zuten otsailean. Apirilean urtebete egin zuen kartzelan. *Egin* egunkaria kudeatzen zuen enpresako presidentea izateagatik 18/98 sumarioaren barruan epaitu zuten Elkoro.

> AISIALDIA

### 'Udako Abenturak'-en izenematea hilaren 21era arte luzatu dute

*Udako Abenturak* udalekuen izenemate epea hilaren 21era arte luzatu dute. Uztailaren 1etik 23ra izango dira Askizun (Getarin), eta astebeteko 3 txanda izango dira. Aurten, lehen aldiz, 2000.urtean jaiotako haurrak joan ahal izango dira.

Bestalde, Txatxilipurditik gogorarazi dute *Kosta ala Kosta* udaleku ibiltaria uztailaren 5etik 16ra egingo dela, eta 14 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.

> HITZALDIA

### Ignacio Ramonet kazetaria Arantzazun izango da zapatuan

Zapatuan, maiatzak 22, Ignacio Ramonet kazetari eta unibertsitate irakaslea izango da Arantzazun, krisiaren gaineko hitzaldia ematen. Gandiaga topagunean hasiko da hori, 10:00etan.

TAU fundazioak eta Caritasek antolatutako hitzaldi horretan parte hartu nahi dutenek 943 28 99 56 telefonora deitu behar dute aurretik, edo *tau_ss@taufundazioa.org* helbidera idatzi.

> IZENDAPENA

### Juan Mari Otaegi, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko presidente

Juan Mari Otaegi Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko presidente izendatu zuten ofizialki joan den egubakoitzean, Euskal Autonomi Erkidegoko Aldizkari Ofizialean izendapena argitaratu zuten egun berean. Jose Luis Ruiz ordezkatuko du hemendik aurrera bergararrak.

Bere ibilbidean zehar, Fagor taldeko hainbat kargu izan ditu eta 1989tik 2009 urtera bitartean, Euskadiko Kutxako presidentea izan zen.

> LANA

### Gizarte osasun laguntzailea izateko izenematea zabalik

Debagoieneko Mankomunitateak lan eskaintza egin du ibarreko egoitzetan, ospitaletan eta erakundeetan pertsona nagusiak, buruko gaitza edo endekapenezko gaixotasuna duten pertsonen zaintza eta bizitza kalitatea hobetzeko arreta soziosanitarioa eta terapia okupazionaleko lanak egiteko. Ekainean hasi eta urtebeterako eskaintza da. Martitzenera arte jasoko dira eskaerak 8:30etik 17:00etara, Mankomunitatean.




# Goiena, egoitza berrian Bergaran

Aurrerantzean, Bergarako Irizar jauregian beharrean,
**Bergarako Ibarra 6n aurkituko gaituzue**
(lehen, Arcelorren bulegoak), Labegaraietako elizaren ondoan.

**Eskelak, zorion agurrak eta iragarki sailkatuak jartzeko,**
edo beste edozertarako, bertan gaituzu.

**Harrera:** 10:00-13:00 / 15:30-18:30 **Telefonoa:** 943 25 05 05 **Faxa:** 943 25 05 12 *www.goiena.com*

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Eguenean eta egubakoitzean Oñatiko Lege Soziologia Institutuan *Hiriko paisaia, delitua eta segurtasun faltaren pertzepzioa* mintegia egin zuten. 20 aditu inguru batu ziren gaur egungo gizarteak bizi duen segurtasun falta eta beldurrak aztertzeko. Pedro Fraile Lleidako Unibertsitateko irakaslea eta doktorea izan zen jardunaldion koordinatzailea.

**Pedro Fraile** > Lleidako Unibertsitateko irakaslea

# "Politikoki asko erabili diren gaiak dira beldurra eta segurtasun falta"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Izatez bilbotarra, Lleidako unibertsitateko irakaslea da Pedro Fraile. Doktoretza egitera Bartzelonara joan zen, eta ordutik hona Katalunian bizi da. Segurtasunari dagozkion gaiak aztertzen ditu; eta horietaz berba egitera etorri da Oñatira.**

**Segurtasunaz jardun duzue Oñatin. Gaur egun, denon ahotan dagoen gaia da.**

Politikoki asko erabili den gaia da segurtasunik ezarena. Askotan, politikariek herritarrengan beldurrak sortzen dituzte, eta horren inguruan kanpaina politikoak egin. Hala, polizia gehiago eskatzen dute, edo beste edozein neurri hartu.

Modu horretan segurtasun falta sortzen dute, eta baita hiri batzuetako hainbat gune estigmatizatu ere.

**Komunikabideek eta *delituaren atariek* ere izango dute zeresana segurtasun faltaren pertzepzioan.**

Bai, hala da. *Delituaren atariak* delakoetan, adibidez, edonork idatz dezake bere hirian gertatzen denaz –atari mota horiek Bartzelonan badaude, adibidez–. Baina, askotan, atari horietan idatzitakoak ez dauka zerikusirik hirian benetan gertatzen denarekin. Hala, hiriko gune zaharrenak, eta baita hainbat kolektibo, immigranteak, adibidez, estigmatizatu egiten dira.

**Esan daiteke herritarrok ditugun beldur batzuk sortutakoak direla?**

Bai; hori da jardunaldi hauen ideia. Hainbat beldur sortuak dira, baina kontuz, esan behar da badutela oinarria. Hau da, ez gara paradisuan bizi. Hala ere, beste beldur asko boterean daudenek sortutakoak dira, beldurra oso gizatiarra da-eta.

Argentinan, adibidez, Buenos Airesko alkatetzarako hautagai batek beldurraren atari bat sortu zuen edonork norberari gertatutakoak idazteko. Han idatzitakoaz baliatuz kanpaina elektoral zorrotza sortu zuen, hark hiritarrengan sortutako beldurretan oinarrituta. Hori nahiko ohikoa da.

Iazko Europako hauteskundeetan ere segurtasuna izan zen gai nagusia. Europako hainbat hiritan izan ginen eta, batez ere, eskuineko alderdi politikoen kanpainako ardatz nagusia segurtasuna izan zen.



Pedro Fraile, Oñatiko unibertsitateko klaustroan. A.E.

GIZABIDE ORDENANTZAK

### "Ordenantza bidez delitua ez dena arautu egin gura izaten dute udalek"

**Oñatin egin duzuen mintegiaren helburua zein izan da?**

Batez ere, gai honen inguruan hausnartzea izan da gure nahia; baina modu kritikoan. Hiriko segurtasuna eta hiritarrek duten segurtasun sentsazioa aztertu ditugu. Horrez gain, gizabide ordenantzak ere aztertu ditugu.

EZKER-ESKUIN

### "Ordenantzak eskuineko gobernuek sortu zituzten, baina orain denek egiten dituzte"

Ez dakit hemen nola dagoen gai hori, baina Bartzelonan, adibidez, oso gogor jarri dira.

Hiritarrek duten segurtasunik ezaren pertzepzioak askotan ez du zerikusirik izaten delituekin. Hau da, niri jendeak esan dit beldurra duela plaza jakin batera joateko, beltz asko daudelako.

DELITUA

### "Gehien izaten den delitua autoetan egiten dituzten lapurretak dira"

Eta nik diot: "Hori ez da delitua, e! Hori azalaren kolorea da". Lanik ez dutenak, kasu honetan immigranteak, plaza batean elkartzea berba egiteko, munduko normalena da. Zerbait egin beharko dute egun osoan! Hori ez da delitua, baina herritarrengan segurtasun falta sortzen dute.

Horren aurrean, hainbat udal gizabide ordenantzak egiten hasi dira. Udalak egiten duena da delitua ez dena arautu: kalean jatea, jendea asko elkartzea leku berean, abestea... Hori guztia gero eta gehiago arautzen dute.

**Ordenantza mota horiek Europa osoan daude?**

Bai, dinamika globala dela esan daiteke, eta, gainera, geldiezina. Hiri handi guztietan hasi dira horrelakoak egiten: arautu gura dute ohikotasunetik irteten den edozein aktibitate. Adibidez, Bartzelonan bost lagun elkartu eta zerbait jan edo litroak edaten baldin badaude, Udaltzaingoak dispertsatu eta isunak jartzeko ahalmena dauka.

Horren helburua gizabidea handitzea da; baina errealitatean egiten duena da kohesio soziala zaildu. Nire ustez, zentzuzkoena bi aldeen artean berba egin eta bitarteko lanak egitea izango litzateke. Baina hori egin beharrean lege zorrotzak egiten dira.

**Arauok gehien sufritzen dituztenak immigranteak dira?**

Ez daude haiei zuzenduak, baina esan daiteke gehien sufritzen dutenak haiek direla. Baina baita gazteak, adibidez, litroen (botilloia) kontuarekin.

Kalean edatea aisialdi mota bat da; ez dago araututa, eta nik ulertzen dut hainbat jende gogaitzea. Azken finean, biztanleriaren diziplinatzea da.

**Araudi mota horiek ezkerreko edo eskuineko gobernuek egiten dituzte?**

Samurrena da esatea eskuineko gobernuek egiten dituztela, eta egia da araudi mota horien sortzaileak eskuineko gobernuak izan zirela. Baina gaur egun, gobernu mota guztiek egiten dituzte; adibidez, Bartzelonan sozialistak daude gobernuan.

**Zeintzuk dira gaur egun gehien gertatzen diren delituak?**

Delitua ez da batere objektiboa. Izan ere, udal baten lehentasuna droga trafikoa geratzea bada, herri horretan gertatzen diren delitu gehienek droga trafikoarekin zerikusia izango dute.

Hori esanda, eta ditugun datuen arabera, delitu ohikoenak autoetan gertatzen diren lapurretak dira; gero, lapurreta txikiak egongo lirateke; eta askoz gutxiago izaten dira biolentziaz egindako lapurretak.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**kale inkesta**

# Zer iruditzen zaizkizu gastuak murrizteko Zapateroren neurriak? Eragiten al dizute?



**Iñigo San Miguel**
Langilea
Bergara

Neurri eskasak iruditzen zaizkit. Konponbide bakarra funtzionarioei soldatak murriztea bada, gaizki gabiltza. Nire ustez badago modu hoberik dirua lortzeko bankuetatik esaterako. Ni neu funtzionarioa naiz.



**Pili Sampietro**
Langilea
Bergara

Gehiegizko iruditzen zaizkit, uste dut murrizketak beste zentzu baten egin beharko liratekeela, adibidez, murrizketak goi mailako funtzionarioei aplikatuta. Ni alarguna naiz, eta pentsioak izozteak eragiten dit.



**Dunixi Olabarria**
Langilea
Bergara

Beste neurri batzuk ere hartu behar dira, baina gauden egoeran ez dakit hain gaizki dauden. Gutxi kobratzen duten funtzionarioen kasuan ez, baina asko irabazten dutenei soldata murriztea ondo deritzot.



**Juan Roke**
Langilea
Bergara

Berandu hartu dira neurriak, eta oraindik ikusi egin beharko da zein eragin duten. Nire lantegian, txanda-kontratuen kasuan eragiten dute. Neurri txarrak dira, baina gauden egoeran zerbait egin behar da.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ESKORIATZA

**> Aranburuzalako lanak amaitu dituztela-eta**

Eskoriatzar batek Aranburuzabala kaleko atzealdeko hegala egonkortzeko egin dituzten lanak txalotu nahi izan ditu, e-mailez bidalitako mezu baten bidez: "Behingoz bada ere, lanek ez dute atzerapenik izan eta epean amaitu dituzte; gainera, eraiki duten horma segurua dela ematen du. Bizilagunengatik pozten naiz, etxera bueltatu eta euren bizitza egiten jarraitu ahal izango dutelako".

OÑATI

**> Haserre zapatuetan anbulatorioa itxita egongo delako**

Ume txikiak dituen oñatiarrak deitu digu haserre, zapatu goizetan, herriko anbulatorioa itxiko dutela jakin duelako: "Askotan joan behar izaten naiz umeekin; normalean, gaitz arinak dira eta jarraian bueltatzen gara etxera. Hemendik aurrera, orduak eman beharko ditut ospitalean". Hori dela-eta, osasun etxea zabalik utzi dezatela eskatu du.

ARRASATE

**> Al-Andalus elkartearen lana txalotzen**

Musakolan bizi den irakurle bat gurekin jarri da harremanetan, auzoko jai batzordearen eskutik, Al-Andalus elkarteak jaso duen saria dela-eta: "Urrezko astakiloa merezi du elkarteak; beti lan egiteko gertu dagoen elkartea da. Ekitaldien antolakuntzan laguntzeaz gain, egoitzan horiek hartzeko prest ere badago; esaterako, erretiratuen afaria".

**usteak uste**

**Mirian Biteri**

# Mundumirara, autobusean

Maiatzaren 29 eta 30ean egingo da Mundumira festa, eta aurreikuspenen arabera, milaka pertsona hurbilduko dira Antzuolara bi egun horietan. Askotariko kultura gertutik ezagutzeko aukera izango dute debagoiendarrek eta baita Euskal Herri osotik iritsitakoek ere.

Gaur egun dena gertu badago ere, aurtengo edizioa antolatzea ez da batere samurra izan, jaialdiaren markaren jabeen eta Debagoieneko Mankomunitatearen asmoak ez zetozelako bat.

Kostata baina, azkenean, bat egitea lortu dute alde biek eta zorionez, Mundumirarekin gozatu ahal izango dugu aurten ere. Hori bai. Dena ondo irten dadin antolatzaileei egin behar diegu kasu. Hau da, autoa etxean utzi eta Antzuolara joateko garraio publikoa erabili dezagun. Gure hobe beharrez ari dira, hortaz, har dezagun guztiok autobusa!

**zorroztailea**



**Markos Balentziaga**

# Hogeita hamar urte

"Jendeak zortzimilako mendiak bide normaletik igo nahi baditu, igo ditzala. Baina esango nuke ordaindutako opor moduko batzuk direla. Zortzimilakoak bide normaletik igotzeko garaia pasa da. Horrek gutxi du alpinismotik".

**Martin Zabaleta**
'Berria' > 2010-05-14



Joan dan egubakoitzian bete ziran 30 urte Martin Zabaletak, Euskal Herritik joandako espediziño batian, Everest gañera igo eta bertan ikurriña ezarri zebanetik.

Bi gogoeta eragin dost 30. urtemuga horrek.

Lehena. Martin Zabaletak *Berria*-ri egubakoitzian esaten zotsanei erreparau eta zenbat aldatu dan mendigoizaletasuna! Euskaldun korrientiok Martin Zabaletaren eta lagun izan zeban espediziño haren igoera haura, zuzen ala oker, igoera erromantiko samar moduan daukagu geureganatuta eta halaxe gogoratzen dogu. Berba tente samarretan esanda gaur Pasabanek, Miss Ho korearrak edota Joanito Oiarzabalek erakusten daben mendizaletasun errekorzale eta profesionaldua-edo (eta telebista-platotik platora dabillena) orain 30 urteko hartatik urriñekua begitantzen jaku.

Zer esan orain hiru aste Annapurnan izandako Tolo Calafaten heriotziaren gaiñian? Mendizaletasun hori gure begikotasunsentipenetatik aparte dabil. Egixa da, ordañetan, zortzi milla metroko mendixen izenak, Annapurna, Sisa Pagma, K2... Udalatx, Kurtzebarri edota Aloña letxe dakiguzela.

> **"Martin Zabaletak 'Berria'-ri egubakoitzian esaten zotsanei erreparau eta zenbat aldatu dan goi mendirako zaletasuna!"**

Bigarrena. Bigarren gogoeta hau ternurarik miñenaz egiña da. Hara: Martin Zabaleta *pikaruak* Everestera botak eta oxigenuaz gañera ikurriña be eruan eta mendi-tontorreko puntaren puntan plantauta laga zeban.

Banderitia, berriz, handik urtetara eruan zeben lehenengo aldiz. Ai, ene! Ikurriña, baña, ezin da iñoiz banderitiaren gallen izan! Hori ez ahazteko hortxe dauzkagu ejerzito bapo-bapo armau bat, Entzutegi Nazionala eta Auzitegi Gorena, bestiak beste.

Zorroztaille-jardunian hontaraño iritsita, hauxe dot galderia: agintegune horrek danak zela onartzen dabe ikurriña Everestera banderitia baño lehenago iritsi izana? Ez dotse kilikilirik egitten euren españoltasunian? Entzutegi Nazionalak edota Auzitegi Gorenak, sententzia haluzinante askuak emoten dakixenak, ez dauke egoera horretarako "jenialidaderik"? Hola geratuko da kontua Historian? Asko da ba!

**ASTELEHENEKO Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Xabier Urtzelai **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Mirian Biteri, Txomin Madina eta Edu Mendibil **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Etxaluzeko taberna gehienez bost urtez ustiatzeko lehiaketa deitu du Udalak **> 14**



**> BERGARA**
Kaleen garbitasunari 6,50eko batez bestekoa eman diote herritarrei egindako inkestan **> 16**



**> OÑATI**
Olaburu Enpresa Ekimenerako Zentroan tailer eta bulego berriak egingo dituzte **> 18**




Bergarako Gazte Informazio Bulegoa Errotalde jauregian dago. Eguenetan eta egubakoitzetan arratsaldez eta zapatu goizetan izaten da zabalik. JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA** > GAZTERIA

# Bergarako Udalak itxi egingo du azaroan Gazte Informazio Bulegoa

**UDALA**
Internetek duen zabalkundearekin, Udalak funtzionalitate eskasa ikusten dio bulegoari gaur

**GAZTE TEKNIKARIA**
Nagusiki, gazteria teknikariaren esku utziko dituzte Gazte Bulegoak egiten dituen lanak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako Udalak Gazte Informazio Bulegoa ixteko erabakia hartu du. Hain zuzen, gaur egun zerbitzu hori emateko dagoen langilearen kontratua amaitzen denean, azaroan hain justu, itxiko dute Errotalde jauregiko azken solairuan dagoen bulegoa.

Gazte Informazio Bulegoa 1999. urtean zabaldu zuten eta ordutik Maider Sedano urretxuarra izan da bertan lanean. Astean hiru egunez izaten da bulegoa publikora zabalik: eguen eta egubakoitzetan arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara, eta zapatu goizetan, 09:00etatik 13:00etara. Maider Sedanorekin batera, Maialen Manterola bergararra dabil azkenaldian Gazte Informazio bulegoan, zapatu goizetan hain zuzen ere.

Agurne Barruso alkatearen hitzetan, "bulegoak eskaintzen duen informazioa eskuratzeko bide ugari dago gaur egun eta horien artean Internet da nagusi. Horixe izan da ixteko erabakia hartzeko arrazoi nagusia. Internetek duen zabalkundearekin ez genion ikusten funtzionalitate askorik eta bulegoak betetzen dituen funtzioak beste modu baten banatzea aztertzen gabiltza. Etorkizunean, Udaleko Gazteria teknikariak hartuko ditu Gazte Informazio Bulegoko funtzio gehienak bere gain".

### Hamaika urtez, hamaika kontu gazteen eskura jarri duen informazio bulegoa

Bergarako Gazte Informazio Bulegoa 1999ko maiatzean ireki zuten eta ordutik bertan izan da lanean Maider Sedano urretxuarra. Hark emandako datuen arabera, urtero, batez beste, 400-500 kontsulta inguru jaso dituzte, "udalekuak izaten direnean etortzen diren gaztetxoak kontuan hartu gabe". Era berean, gaur egun 100 bat gaztek jasotzen dute Gazte Informazio Bulegoaren buletina, korreo elektroniko bidez. Maider Sedanoren hitzetan, "helburua ez da jendea bulegora etortzea, baizik eta informazio baliagarria eskaintzea. Informazioa guztion eskura dago gaur, baina informazio guztia ez da baliagarria eta unibertsitate ikasketak amaitu ondoren guregan etortzen den jendea ere badago, ez daukatelako oso argi zer egin dezaketen. Azken baten informazio puntu bat da Gazte Bulegoa".

**UDAL GAZTERIA TEKNIKARIA SORTU**

Gaur egungo Udaleko hezkuntza teknikari lanpostua lehiaketara aterako dute, baina gazteria teknikari lanak egingo ditu nagusiki. Gazte Informazio Bulegoak egin izan dituen lan batzuk gazteria teknikariaren esku utziko dituzte: besteak beste, lan eskaintzen eta beken informazio panelak eguneratzea eta Udaleko webgunea gazteei zuzendutako edukiekin elikatzea. Bestalde, gida turistikoen erosketa eta mailegua Udal Liburutegiak egingo ditu aurrerantzean eta gazte txartelen eta horrelakoen gestioa Jaurlaritzaren esku uztea asmoa da.

**SAN ISIDRO**> AZOKA ANTZUOLAN

# Euriari aurre eginaz, giro herrikoia nagusi Antzuolako San Isidro azokan

Euriak eta giro petralak azoka hasiera goibeldu zuen arren, eguerdi partean jende ugari ibili zen plazan eta Kalebarrenen jarritako postuetan

**TXOMIN MADINA** > ANTZUOLA

Ezti ekologikoa eta eskuz landutako makilak. Euskal pastelak, taloak, ganadua eta kontserbak. Eta zoritxarrez, une askotan, baita euria ere. Denetarik egon zen zapatuan Antzuolako San Isidro azokan, eta aterkia eskutan hartuta, asko eta asko izan ziren bertaratu zirenak.

**HERRITARREN PRESENTZIA**

Artisau eta saltzaile asko kanpotik etorri arren. egon zen antzuolarrik: Diego Sanchezek esaterako, etxean egindako makilak erakutsi zituen, eta Iralatorre baserriko Aimar, Ekain eta Ibaik baserritar jantzita eraman zituzten euren etxeko ardiak eta ahaaria ganadua zegoen tokira. Aurten gainera, lehenengo aldiz, Lizarraga auzoko bizilagunek taloak saltzeko postua jarri zuten presoen aldeko dirua jasotzeko, eta ilarak ikusita, esan daiteke ideia arrakastatsua izan zela.

Kukumarruen lehiaketa ere egin zen eta antzuolarrek sekulako irudimena dutela erakutsi zuten: kukumarru txirrindulariak ikusi ahal izan ziren, baita *El Jonan* famatua edo Galileo Galilei bezala jantzitakoak ere.



Iralatorre baserriko mutikoek eurek eraman zituzten animaliak azokara. GOIENKARIA

SALTZAILE ETA EROSLEEN IRITZIA



**Diego Sanchez**
Antzuolako artisaua

"Etxean egindako makilak eta bastoiak ekarri ditut. Euriarekin eguna triste hasi da; udaletxeko arkupetan sartu behar izan dugu. Jendeak gerturatzen da, baina saldu, azoka ostean saltzen dugu".



**Felix Aranburu**
Antzuola

"Urtean zehar ez da gauza handirik egoten Antzuolan, beraz horrelako egunak eskertzen dira. eguraldiak lagundu ez arren, jende arteko giro polita dago. ea Hurrengo urtean ere egiten den!".



**Joseba Billakorta**
Eztigile nafarra

"Goiza motel samar hasi da, baina eguerdi partean hasi da mugitzen. Salmentak eguraldia bezalakoak ari dira izaten, flojo samarrak. Etxean egindako ezti ekologikoa ezagutzera ematera etorri gara".



**Jesu Mari Mata**
Antzuola

"Sekulako giroa dago orain. Umeek kukumarruak egin dituzte, eta horiek ikustera ere etorri gara. Talorik ez dut jan, baina goizean goiz etorri naiz postuetan gosaltzeko gozokiak ersotera".



**Maria Angeles Lizarralde**
Antzuola

"Goizean ez dakit zenbat jende egongo zen, baina orain giro polita dago. Ikusi bakarrik ez, erosi ere egin dugu guk: txorizoa, ogia, pastelak... Horrelako azoka batek bizitza ematen dio herriari".

**JENDARTEA** > JAIALDIA

## Oñatiko Zubikoan Atzegik egindako bazkarian 140 lagun inguru elkartu ziren zapatuan

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Debagoieneko Atzegiko kideak Oñatin elkartu ziren zapatuan. Eguerdian herriko plazan elkartu eta Santa Ana antzokirantz joan ziren. Elkarteko ordezkarien eta Oñatiko alkatearen hitzen ondotik, Atzegiren ibilbidearen gaineko filma ikusi zuten; 50 urte betetzen ditu aurten. Jarraian, martitzenera arte ikusgai egongo den erakusketan izan ziren. Bazkaria ere egin zuten; 140 bat lagun batu ziren Zubikoan. Bazkalostean, dantzaldia izan zuten eta neska-mutikoek oparitxoa jaso zuten. Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute.



Zapatuko bazkarian izandako taldea. JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

## Urrezko astakiloa, Al-Andalusi

Musakolako jaien harira, zapatu eguerdian urrezko astakiloa banatu zuen jai batzordeak. Aurten, Al-Andalus elkarteari eman diote saria, urte hauetan guztietan jaien alde egindako lanagatik. Horren kolaborazioa eskertu nahi izan dute modu horretan. Elkarteko presidente Rafael Gomezek jaso zuen.

**OSPAKIZUNA** > LORAMENDI ELKARTEA

# Euskerien Eguna ospatu zuten zapatuan Aretxabaletan

## Eguraldiak lagundu ez arren, jende dezente zapatu goizeko ekitaldietan; 30 lagun ibilaldi historikoan eta 150 lagun herri bazkarian







Jende ugari batu zen plazan goizean. Behean, ezkerrean, antzezlaneko irudi bat eta eskuman Basotxoko abeslariak. E.M.

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

Ez zuten eguraldia aldeko izan zapatuan, Euskerien Eguna ospatzeko. Hotzari eta euriari aurre egin zioten aretxabaletarrek, Loramendi Elkarteak antolatutako ekitaldietan parte hartu zuten gaztetxo eta nagusiek.

Gaztetxoendako jolasak izan ziren goizean, tailerrak ere bai, eta nagusiek, aldiz, *Atxabalta len ta oin* izenburuko ibilaldia egin zuten, Loramendiko Kultur Sorkuntzarako toponimia taldeek gidatuta. Bi ordu pasatxo iraun zuen ibilaldiak, eta behin baino gehiagotan ireki behar izan zuten guardasola partaideek. Argazkiekin eta testuekin lagundutako programa dotorea atera zuten Loramendikoek ibilaldirako eta parte hartzaileak (30 inguru) oso gustura geratu ziren ikusitakoarekin eta jasotako azalpenekin: Arratabe jauregia, Santutxuko ermita, Mojen komentua, San Martin auzoa eta beste hainbat toki bisitatu zituzten.

**HERRI BAZKARIA**

Ibilaldia amaitu aurretik, Arelarre antzerki taldeko gaztetxoek *Tangaladanba* antzezlana eskaini zuten pilotalekuan. Mikrofonoen falta sumatu genuen, ez baitzen erraza aktoreek esaten zuten entzutea. Eguerdi aldera, Basotxo erretiratuen elkarteko abesbatzak hiruzpalau abesti eskaini zituen plazan, luntxa aurretik. Fin aritu ziren erretiratuak kantuan, Jose Luis Errastiren zuzendaritzapean. Jarraian, euria hasi zen berriro, baina horren errudun ez ziren kantariak izan, inola ere. Halako egun aldrebesa tokatu zen Euskerien Eguna ospatzeko. Joango dira ostarteak zabaltzen Loramendi elkartearen ibilbide berrian.

Eguerdian 150 lagun inguru batu ziren plazan egindako bazkarian. Menua, entsalada, okela gisatua eta postrerako, ijito besoa. Orduroko eguraldiak zertxobait egin zuen hobera eta giroa berotzen joan zen arratsaldeko ekitaldietan. Antolatzaileak, Loramendiko kideak, pozik egunak emandakoarekin. Baita Hiruatxekoak, bidezko merkataritza postuek goizean izandako harreragatik .

**JAIAK** > OÑATI

# Kasablankako San Isidro jaiak, euripean

## Zapatu arratsaldeko olagarro eta sagardo dastatzea arrakastatsua gertatu zen

**E.M.** > OÑATI

San Isidro jaiak ospatu dituzte aste bukaeran Oñatiko Kasablanka auzoan. Aretxabaletan zapatuan gertatutako moduan, euria izan da zoritxarreko protagonistetako bat. Hala ere, Hernaniko jendea ere hurbildu da Kasablankako San Isidroak ospatzera: egubakoitzean jo zuen musika taldeetako bat, Methew, Hernanikoa da eta taldekideek 20 bat lagunen laguntza izan zuten eskenatoki azpian. Martxa ona erakutsi zuten hernaniarrek, baita Black River eta Dark Codek ere.

**OLAGARROA ETA SAGARDOA**

Zapatuan, egunari hasiera emateko etxafuegoak... eta euria. Hala ere, haur-jolasak, zinta lasterketa, futbolin txapelketa edota txorimaloak izan zituzten Kasablankan. Olagarro eta sagardo dastatzea arrakastatsua gertatu zen, betiko moduan. Eta gauean, aretoko dantzen erakustaldiarekin gozatu zuten gaztetxoek. Joxe Gardoki soinu-jolea arduratu zen giroa alaitzeaz.

Domekan, jaiei amaiera emateko, auzokoendako luntxa izan zen eta orduan bai, orduan eguraldiak gehiago lagundu zuen.



Aterpean, mahai-futbolean lehiatu ziren gaztetxoak. JOSETXO ARANTZABAL



Euriari aurre egiteko, onena txoznako aterpean gordetzea. JOSETXO ARANTZABAL

**ZERBITZUAK** > ABAROA

# Etxaluzeko taberna ustiatzeko lehiaketa publikoa deitu du Udalak

Taberna hartuko duenari urtebeteko lagapena egingo zaio; gehienez, bost urte

Asteko egun guztietan zabalduko da, baina astelehenetan ixteko aukera dago


Uda aurretik erabilgarri beharko luke Abaroa berriak, Etxaluze eraikinean; taberna lehen solairuan joango da. JOKIN BEREZIARTUA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Ekainerako gertu beharko luke Abaroa berriak, Etxaluze eraikin ikusgarrian. Uda aurretik behintzat erabilgarri egon beharko luke, eta atzerapenak atzerapen, Udalak espero du obrak ordurako amaitzea.

Ez da ahaztu behar hamaika arazo eta buruhauste sortu dizkiola udal gobernuari Etxaluze eraikinak; besteak beste, gutxienez bi hilabeteko atzerapena eta hasierako aurrekontua baino %15 gehiago kostako zaio Abaroa berria egitea. Bada, urak bere tokira bueltatu direla dirudi: azken osoko bilkuran udalbatzak erabaki zuen tabernaren ustiapenerako lehiaketa publikoa deitzea. Kontzesio administratiboan utziko luke, printzipioz, urtebeterako. Gehienez bost urtera arte luzatu ahalko da. Hori bai, akordioa apurtzeko bi aldeek hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dute.

**ASTE OSOAN ZABALIK**
Udalak egunero zabaltzeko asmoa du, eta bi aldeak Abaroarekin batera akordio batera iritsita astelehenetan itxi daiteke. Honakoa ordutegia, printzipioz: astelehenetik egubakoitzera 10:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 21:30era. Aste bukaeretan: 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara.

**OSPAKIZUNAK** > ESKUALDE ELKARTEAK

# 20 urtetan 21 Aste Kultural: Al-Andalus bizirik eta gogotsu dago

Zuzendaritzak egitarau berezia prestatu du elkartearen urteurrena dela-eta

**J.B.** > ARRASATE
Al Andalus elkarteak 20 urte bete ditu aurten eta beraz, berezia izango da ospatzen ari diren aste kulturala. Bi hamarkada bete dituzte baina 21. Aste Kulturala izango da; oso erraz azaldu du Rafael Gomez elkarteko presidenteak: "Elkartea sortu eta gutxira, urtebete egin aurretik, ospatu genuen lehen aste kulturala. Lehen urteurrena bete eta gutxira bigarren aste kulturala ospatu genuen, eta horrela gaur egunera arte".

**HERRIAN INTEGRATZEN JAKIN**
20 urte asko dira, are gehiago, elkartea aitzindaria izan denean: "Inork ez zuen gure alde ezer ez ematen, hiru hilabete iraungo genuela uste zuten, eta 20 urte bete ditugu", dio Gomezek.

Eskualde elkarteen artean ezer gutxi zegoen Al-Andalus sortu zenean, eta egun Debagoienean eskualde elkarteen artean hobeen dagoenetako bat da Al-Andalus. Herrian integratzen jakin dute; horren adibide garbia da amaitu berri diren Musakolako jaietako kartelean astoa sevillanaz inguratuta irudikatu dutela. Zuzendaritza taldea kezkatuta dago belaunaldi aldaketa dela-eta; oraingoz lortu dute zuzendaritza taldea neska gazte bat sartzea.


Zuzendaritzako Rafael Gomez, Jose Largo , Francisco Romero eta Antonio Nevado. J.B.

## Egitaraua, gaurtik hasita

**17, astelehena**
**20:00** *Jarapas* erakusketaren irekiera. Granadako eskulangintza artelanak.

**18, martitzena**
**20:00** Argazki proiekzioa: *20 años de Al-Andalus*.

**19, eguaztena**
**19:00** Pintxo-pote berezia.
**20:00** Gozogintza. Gastronomia eta gozogintza andaluziarraren jardunaldien barruan kokatzen dira.

**20, eguena**
**20:00** Ardo-dastatzea, Fernando Jimenez Alvear-en eskutik. Izena emateko bulegora jo.

**21, egubakoitza**
**19:30** *La Saeta, dardos de pasion* hitzaldia Kutxaren Donostiako hitzaldi aretoan.
**22:30** *Play-back* lehiaketa.

**22, zapatua**
**16:00** Lehen domino txapelketa.
**21:00** Sarayola katering-aren eskutik afaria.
**23:30** *El Peli* umoristaren saioa.

**23, domeka**
**11:00** Ate irekien jardunaldia.
**11:00** *Alegria de la Sierra* eta *Suenos de Andalucia* taldeen emanaldia.

> LAPURRETAK

### Olarte kaleko If dendan sartu ziren egubakoitz goizaldean

Lapurretak ohikoak ari dira bihurtzen Arrasaten. Egubakoitz goizaldean Olarte kalean dagoen If perfume dendan sartu ziren lapurrak. Autoa ondoko garajearen sarreran utzi ostean, dendako ate baten bi sarrailak apurtu eta denda barrura sartu ziren.

Dendako arduradunak sortutako kalteak aztertzen ari dira oraindik. Bizilagun batek jakinarazi zuenez lapurrak hiru ziren.

> ZINEMA

### 'El escritor' filma ikusteko azken aukera gaur, 20:30ean

Roman Polanskiren azken lana, *El escritor*, ikusteko aukera izango da gaur Amaia antzokian, 20:30ean. Thriller politiko honetan, idazle batek Britainia Handiko Lehen Ministro ohi baten memoriak idazten ari denean ikertuko dituenak kontatzen ditu. Dakien guztia bere kontra jarriko da laster, bere bizitza ere arriskuan jartzeraino...

**HISTORIA** > 'ARRASATE, HARRI ETA BURDIN'

# 1448an erre zituzten herritarren gaineko daturik ez dago

Hiribilduaren 750. urteurrena dela-eta antolatutako hitzaldiei '1448ko Arrasateko erreketa' saioarekin eman die amaiera Toti Martinez de Lezeak

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

"Ganboatarren eta oinaztarren artean, bando baten 300 pertsona inguru hil ziren eta 600 bat bestean, baina herritarren gaineko datu, aipamen edo zita bakar bat ere ez da egiten historia liburuetan". Toti Martinez de Lezeak argi utzi zuen 1448an ganboatarrek eta oinaztarrek Arrasate erre zutenean herria ahaztuta geratu zela; egun, ez dakigu zenbat pertsona hil ziren erreketan.

Martinez de Lezeak "anaien arteko borroka" moduan definitu zuen guduan erregearena zen hiribildua erre zuten: "Oso gauza bitxia", idazlearen esanetan.

**GERTUTASUN ERAKUSTALDIA**

*1448ko Arrasateko Erreketa* izenburuarekin, oso hitzaldi interesgarri, entretenigarri eta atsegina izan zen; Kulturaten eserlekurik ez eta ordu eta erdi pasatxoz ikusleria adi-adi idazle gasteiztarraren azalpenak jarraitzen. Idazleak berak hitzaldi ostean esandakoaren arabera, Arrasateren gainean ez zen askorik mintzatu. Izan ere, hizlariak ez zuen gidoi bat zorrotz jarraitu berba egiteko orduan; ez da haren estiloa. Hala, komunikatzeko duen dohainaz baliatuz, hainbat bitxikeria kontatu zituen, ohikoa duen gertutasun erakustaldia eginda.



Idazlearen gertutasunaren adibide garbia: hitzaldiaren ostean ordu erdi baino gehiago eman zuen liburuak sinatzen. J.B.

ALDARRIKAPENA

## Gaztelauen aurrean, Nafarroako bandera

Zapatuan bete ziren 750 urte Alfontso X.a erregeak Arrasateri hiri-gutuna eman zionetik. Horren aurrean, "gure jatorri eta izaera nafarra aldarrikatzeko", Nafarroako bandera jarri zuten dragoiaren ondoan "Arrasateko nafarrak" moduan sinatu duen taldeak: "Arrasate nafarra zen; Goikobaluko gaztelua, horren adibide".



Nafarroako bandera, dragoi ondoan. J.B.

Toti Martinez de Lezea > Idazlea

## "Erre ostean berdin eraiki zen alde zaharra; berezia da"

**J.B.** > ARRASATE

**Kulturatera heldu zenerako aretoa lepo beteta zegoen, zertxobait berandu heldu zelako. Baina Toti Martinez de Lezea (Gasteiz, 1949) oso ohituta dago jendaurrean berba egitera eta lehen minututik bereganatu zuen ikusleria. Hitzaldi ostean egon ginen harekin.**

**Amaitu berri den hitzaldi zikloaren helburuetako bat zen azaltzea Arrasateko hiri-gutunaren 750. urteurrena ospatu behar den edo ez. Zein iritzi duzu zuk?**

Garai hartan gertatu zena ezagutzera eman behar da. Behin jakinda, gure historiaren parte denez gero, ez dut gaizki ikusten ospatzea. Kontuan izan behar da hiri-gutuna emateak esan gura zuela herritarrak jauntxoenganako mendetasunetik askatzea.



J.B.

**Historia irakasleei gustatuko litzaieke zure arrakasta izatea.**

Ez naiz historialaria, ez. Baina historia irakurtzea asko gustatzen zait, gure historia. Nire arrakastaren inguruan honakoa esan dezaket: jendeari gertuko historia gustatzen zaio, baina eskolan ezin izan dute ikasi, eta horregatik interesatzen zaizkie nire istorioak. Istorioak direlako; gure historian oinarritutakoak, baina istorioak.

**Aretoa lepo beteta. Pozik, ezta?**

Ez nuen horrenbeste jende espero, eta ordu eta erdi baino gehiago egon dira mugitu ere egin barik, adi-adi. Poztekoa da. Arrasaten ondo egiten dira gauzak eta oso gustura etortzen naiz; gainera, lagun onak ditut, senarrak hemen egin zuen lan.

Horrez gain, oso berezia da alde zaharra, hiribildua erre ostean herritarrek berdin berreraiki zuteneta. Plazer hutsa da bertako kaleetatik igarotzea.

**AISIALDIA** > TXATXILIPURDI

# Futbol maratoiarekin erdigunea piztu guran

Erdigunea Piztu ekimenaren beste edizio bat izango da zapatuan: futbola eta zuzeneko musika

**J.B.** > ARRASATE

Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoek erdigunea pizten saiatuko dira, beste behin ere. Oraingoan, gaztetxoen artean arrakasta bermatzen duen futbol maratoia prestatu dute zapatu arratsalderako (16:00). 12 eta 17 urte artekoei dago zuzenduta, eta Zaldibarren izango da. Izenematea itxiko dute egubakoitzean, hilak 21. Bi txapelketa jokatuko dira; batean, neskek bakarrik jokatu ahalko dute eta bestea, berriz, txapelketa mistoa izango da. Izan ere, antolatzaileek nesken parte-hartzea bultzatu gura dute.

**IRAUPENA, JOKALARIEN ARABERA**

Bost jokalari eta atezain batez osatuko dira taldeak eta zapatu goizean zehaztuko du antolakuntzak partiduen iraupena. Hau da, jokalari kopuruaren arabera norgehiagoak luzeagoak edo motzagoak izango dira. Lander Juaristi Txatxilipurdiko dinamizatzaileak aurreratu duenez, partidu motzak egitea da asmoa, azkar joan dadin eta guztien parte-hartzea bermatzeko.

**KONTZERTUA FINALAREN AURRETIK**

Gol uholdeaz gain, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera ere izango dute gaztetxoek. Izan ere, final handiaren aurretik Dirty Brothers taldeak kontzertua eskainiko du, kantxaren ondoan jarriko duten agertokian. Kontzertua 19:00etan hasiko da; arratsalde osorako plana, beraz.




Mahai-futbol txapelketa egin zuten Erdigunea Pizturen aurreko jaian. GOIENKARIA

**HITZALDIA**

# Gorputzaren esanak nola interpretatu ikasten

**J.B.** > ARRASATE

Bedoña Batu kultura elkarteak antolatuta, Miren Artzak osteopatak hitzaldia egin zuen zapatuan. Bi ordu inguru iraun zuen hitzaldian, emozioek gure osasunean nola eragiten duten azaltzen saiatu zen Artzak.

**SAIO ESPERIMENTALA**

Gainera, gure gorputzak esaten diguna nola interpreta daitekeen azaldu zuen. Hau da, edozein min dugunean nondik etor daitekeen eman zuen aditzera: "Gure gorputza sentitu eta barne mugimendua azaleratzen jakin behar dugu".




Herritar bat beiraren edukiontzia erabiltzen. GOIENKARIA

**UDALA** > INKESTA

# Kaleen garbitasunari 6,50eko batez bestekoa eman diote herritarrek

Otsailean egindako biztanleriaren gogobetetze mailari buruzko inkestaren emaitzek diote hori

Asebetetze orokorra 7,01ekoa da eta azken urteotan udalerriak hobera egin duela uste dute

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Biztanleriaren gogobetetze mailari buruzko ikerketaren emaitzak eman ditu Gizaker merkatu-azterketan diharduen enpresak. Ikerketa hori Udalak agindu zion, herriari buruzko gai batzuen hedadura eta ezaguera ezagutzeko asmoz, Aldundiak bultzatutako Kudeatuz II programaren barruan. Batik bat, kaleen garbitasuna, hiri-altzariak eta udal arduradunen gaineko gogobetetze maila ezagutu nahi izan dituzte udal arduradunek inkestarekin.

Ikerketa egiteko erabilitako metodologia kuantitatiboa izan da, telefono bidezko elkarrizketa teknikaren bidez. Inkestok egin dira aurtengo otsailean, Bergaran bizi diren 18 urtetik gorako 546 pertsonaren artean.

**HERRITARRAK, POZIK**

Bergarako herritarren asebetetze orokorra 7,01ekoa da, 10eko eskalan. Azken urteetan herriak hobera egin duela uste dute inkestatuek. %63,9k adierazi dute, hain zuzen, "hobera" egin duela.

Pertzepzio positibo ahulena duen inguru edo auzoa Angiozar da, eta hobera egitearen pertzepzio sendoena duena, berriz, Zabalotegi auzoan.

Asebetetzearen beste adierazle bat da udalerritik alde egin nahi duten biztanleen portzentajea: %63,6k nahiago dute Bergaran bizi izan beste leku baten baino. Era berean, familien etxebizitza eskaera %12,5 da Bergaran, ohikoa baino zertxobait txikiagoa. Gehienek udalerrian bertan izan nahiko lukete (%74,8).

Bestalde, herritarrek sumatzen dituzten arazo nagusiak hauek dira: aparkalekuen falta, langabezia, gazteendako jardueren falta eta zirkulazioa.

**KALEEN GARBITASUNAREKIN POZIK**

Garbitasunaren atala izan da, batez ere, ikerketaren aztergai nagusia, eta ez dirudi arlo horretan arazorik dagoenik; gainera, sarritan alderdi positiboak gailendu dira.

Herritarrek garbitasunari emandako batez bestekoa 6,50ekoa izan da, 10eko eskalan. Angiozarren eta Martokon ageri dira puntuazio txikienak; eta asebetetze-maila handiena adierazi dutenak, berriz, Alde Zaharra eta Espoloia dira.

Azterketan parte hartu dutenek goraipatu dituzten alderdiak dira "hirigunea garbi" dagoela eta "erabilitako makineria". Alderdi txar nabarmenenak, berriz, hauek dira: "Garbitasunari dagokionez, alde batera lagatako auzoak", "txakur kakak", "espaloi zikinak" eta "garbitasuna egunero ez egitea".

Kale-garbiketaren maiztasunari dagokionez, 6,89 puntu jaso ditu, 10eko eskalan eta biztanleen %80k uste dute garbitasuna egiteko ordutegiak egokiak direla. Era berean, erabiltzen diren garbitasunerako mekanismoen eta sistemen egokitasunari buruzko iritzia adieraztean 6,77 puntu eman dizkiote. Kaleetako usainen balioespena ere positiboa dela dirudi: 6,93ko puntuazioa jaso du –Osintxu da kexa handien dituen auzoa–. Aldiz, kaleetan botata dauden paperek eta hondakinek nota txikiagoa jaso dute, 6,14 puntu.

**HERRITARRAK ERANTZULE**

Herritarrek argi ikusten dute herria ez dela zikinagoa inguruko herriak baino eta hala adierazi dute herritarren %74,4k. Ez diote irizten zikintasun arazoa dagoenik. Hala eta guztiz ere, arduratsu ageri dira eta galdera hau planteatzen zaienean: "Nor da herria zikin egotearen erantzule?", inkestatutako herritar gehienek (%62,5ek) euren gain hartu dute erantzukizun hori.

Herriko garbitasuna hobetzeko iradokizunak ere egin dituzte herritarrek; nagusiak hauek dira: "Metodoa hobetzea", "toki guztiak berdin garbitzea", "paperontzi gehiago jartzea", "garbiketa-zerbitzuen ordutegia zabaltzea" eta "taberna eta denda ugari dauden tokiak gehiago garbitzea".

Gizakerko adituen esanetan, datuek adierazten dute garbitasunaren alorrean ez dagoela arazorik, herritarren ustez, baina horrexegatik gai hori ez dela alde batera laga behar; herritar gehienek (%71,8) uste dute "Udalak lehentasuna" eman behar diola garbitasunari.

Bestetik, agintaldia bukatu aurretik Udalak bete beharko lituzkeen eginkizunez galdetuta, hauek bete behar dituela uste dute: "Auzoak hobetzea", "garbitze lanak egunero egitea", "paperontzi gehiago jartzea", "herritarrak kontzientziatzea" eta "ibaia garbitzea".

DATUA

## %63,6

**POZIK BIZI DA BERGARAN**

Baina badira bizi izateko beste herri batzuk aukeratuko lituzketen bergararrak: Donostia %9,5ek; Zarautz %2,4k eta Oñati %1,6k, esaterako.

UDALA ETA ARDURADUNAK

## Udal arduradunen lanarekin pozik

Oro har, egungo udal-kudeatzaileek 6,40ko puntuazioa dute, eta herritar kritikoenak Martoko eta Zabalotegikoak dira. Ikerketak puntuazio hori inguruko beste herri batzuekin konparatzen du eta dio beste herrietakoa txikiagoa dela: 6,01, batez beste. Inkestatuen ustez, Udalak egindako ekintza positibo nagusiak dira: kaleak konpontzea, herritarren iritzia aintzat hartzea, kultura-jarduerak, gazteeendako jarduerak eta eraikuntza lanak.

Alkatearen jardueraren kasuan, 7,03ko puntuazioa eman diote, ohikoa baino (6,35) handiagoa.

HIRI-ALTZARIAK

## Gizabidezko portaera hobe daiteke

Hiri-altzarien alorrean balioespen handiena izan duten alderdiak dira: "Edukiontziekiko distantzia, "edukiontzi kopurua" eta "espaloien garbitasuna". Eta hobetu daitezkeen alderdiak dira: "Edukiontzien garbitasuna", "paperontzien kopurua" eta "paperonzien garbitasuna".

Oro har, herritarren %81,7k uste dute hiri-altzariak (farolak, eserlekuak...) garbi daudela, baina uste dute gizabidezko portaera hobetu egin daitekeela; %46,5ek adierazi dute gizabidezko portaera dutela herritarrek, baina %36,3k diote ezetz.

**PAZKOAK** > EKITALDIAK

# Eskari handia egon dela eta, herri bazkarirako beste 50 txartel atera dituzte

Hasiera baten 700 txartel jarri zituzten salgai, baina guztiak saldu direla kontuan izanda beste 50 ateratzea erabaki dute

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Mendeskoste jaietako herri bazkaria sekulakoa izango dela ez dago zalantzarik. Urtetik urtera gora egin du parte-hartzaileen kopuruak, baina aurtengoak errekor guztiak hautsiko ditu, seguru.

Hain justu ere, iaz 500 lagunendako txartelak atera zituzten, baina, herritar asko txartel gabe geratu zirela kontuan izanda, aurten, 700 lagunendako bazkaria antolatzea erabaki dute. Bada, eskariak gainditu egin du aurreikuspena eta udal arduradunek erabaki dute beste 50 txartel ateratzea.

Horrekin guztiarekin, udal arduradunek aurreratu dute egubakoitzerako ia guztiak salduta zeudela.

Bazkaria Pazkoetako astelehenean izango da, San Martin plazan. Hala eta guztiz ere, eguraldi txarra egingo balu Labegaraieta kiroldegian egingo litzateke, eta, hori horrela gertatuz gero, Labegaraietara joateko urbano zerbitzua jarriko dute.

Menuari dagokionez, ez da paella erraldoirik egongo, iaz bezala. Hain justu ere, *catering* zerbitzua egongo da eta menua honakoa izango da: patatak errioxar erara, okela gisatua, etxeko hostopila eta kafea.

**KOADRILEN EGUNA**
Bazkariaren aurretik koadrilek jai giroan murgiltzen joateko aukera izango dute 12:30ean Espoloian egongo den dantzaldiarekin. Bazkaldu bitartean ere ez da isilduko musika, txaranga batek alaituko du-eta bazkaria.

Bazkaldu eta gero koadrilen arteko jolasak egingo dituzte, eta, horrez gain, abesteko aukera ere izango dute mikrofonoa hartu eta taula gainera igota.

**AMALURRA ZAINDU**
Herri Mugimenduak txosnagunean baso berrerabilgarriak erabiltzeko dei egin du. Hala, iaz egin zuten moduan, kolore asko eta *Xaxau* birusaren irudia duten edalontzi berrerabilgarriak atera dituzte. Edalontzi bakoitzeko 50 zentimo ordaindu beharko dira. Edozelan ere, diru hori berreskuratzeko aukera egongo da. Hain justu ere, egunero 12:00-21:00 ordutegian edalontzia itzuliz gero dirua bueltatuko dute.

*Erabili eta bota* filosofia alde batera laga eta jaietan zabor gutxiago sortzea da ekimenaren helburua. Iaz, erdira jaitsi zuten zabor kopurua.



ARANZADI IKASTOLA

## Muxika eta Sanz ikasleak sarituta

Galtzagorri elkarteak antolatzen duen Idazte Gaztea literatura lehiaketan saria jaso dute Nerea Muxika eta Irati Sanz Aranzadi ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleek.

Narrazio laburren sailean saritu dituzte biak: Nerea Muxikak bigarren saria eskuratu du eta Irati Sanzek, berriz, hirugarrena.

> MUSIKA

**Bergarako Musika Eskolak zabaldu du 2010-2011 ikasturterako matrikulazio epea**

Maiatzaren 28ra arte egongo da zabalik Musika Eskolan izena emateko epea. Instrumentuak ikasteko eta musika eskoletarako eman daiteke izena.

Izena emateko edo informazio gehiagorako jo Musika Eskolara edo deitu 943 76 57 80 zenbakira, astelehenetik egubakoitzera, 15:30-19:30 ordutegian.




Eneko Ibañez, irudia erakusten. JARDUN ELKARTEA

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Eneko Ibañez da jaietako zapiaren irudiaren irabazlea

1.200 zapi atera ditu Jardunek eta salgai jarriko ditu egubakoitz eta zapatuan

**M.B.** > BERGARA
Eneko Ibañez gazte gasteiztarra izan da Jardun euskara elkarteak Pazkoetako zapiko irudia eta leloa aukeratzeko antolatzen duen lehiaketaren irabazlea. Guztira, 14 lan aurkeztu dira.

Gasteiztarraren irudian dantzan diharduen bikotea ageri da eta leloa ere bat dator horrekin. Hala dio: *Bergara dantzan euskararekin plazan*. Ibañezek 60 euro jasoko ditu sari moduan.

1.200 zapi jarriko dituzte salgai jaietako egubakoitz eta zapatuan, 3 euroren truke, San Martin plazan. Bestalde, leloarekin ateratzen duten pegatinari dagokionez, berria atera ordez, aurreko urteetakoak errepikatuko dituzte, elkarteak 20 urte egiten dituela-eta.

## oharrak

UDALA
**> Labegaraieta kiroldegiko taberna lehiaketara atera du Udalak**
Labegaraietako kiroldegiko instalazioei erantsitako tabernaren ustiaketa eta haren kirol esparruen kontrol eta garbiketa kontratatzeko deialdia egin du. Eskaintzak erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira hilaren 26ko 13:00ak baino lehen. Lizitazio oinarria dira urteko 15.690 euro, BEZa kanpo. Baldintzak eskura daitezke udaletxeko idazkaritzan eta *www.bergara.net* helbidean. Informazio gehiago Agorrosin Ekintza Gunean.

UDALA
**> Adin txikikoekin lan egiteko zerbitzua kontratatzeko deialdia**
Udala kontratatzekoa da aurten ere adin txikiko eta gazteen inguruan egon daitezkeen arrisku egoerei aurre hartzeko zerbitzua. Eskaintzak udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira maiatzaren 26ko 13:00ak baino lehen. Lizitazio oinarria dira urteko 53.450 euro, BEZa kanpo. Baldintzak eskura daitezke udaletxeko idazkaritzan eta *www.bergara.net* webgunean.

ZERGAK
**> Ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik**
Borondatezko epea da ekainaren 30era arte. Egun horretatik aurrera errekarguaz kobratuko da. Ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxearen bidez kobratuko zaie. Helbideratu gabe dituztenek etxean jasoko dute datozen egunotan ordainketa egiteko behar duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxe edo udal bulegoetatik pasa daiteke ordainketa egiteko. Agiria maiatzaren 31 baino lehen jaso ezean, kontu-hartzailetzara jo.

Zumelaga
JATETXEA
JAIETAN
EGUNERO ZABALIK
Zuen zerbitzura izango gaituzue!
Ondo pasau jaixetan!
San Antonio 5. BERGARA.
943 76 20 21

**ZERBITZUAK** > ENPRESA EKIMENERAKO ZENTROA

# Olaburu zentroan tailer eta bulego berriak egingo dituzte

Soldadura tailerrak egiten zituzten lokalean lau bulego eta tailer bat egingo dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Udalak Zubillaga auzoan duen Olaburu Enpresa Ekimenerako zentroa eraberritu egingo du. Helburua da hutsik dagoen espazioan bulego eta tailer berriak egitea. Bestalde, karga-jasogailuaren ordez igogailua jarriko dute; eta, irisgarritasun arauetara egokituz, komunak eraberrituko dituzte. Mankomunitateko Enplegu Tailerreko *Eraikuntzen Mantenua* delako alorrean diharduteneк egingo dituzte lanok.



Olaburua zentroak 1.800 metro koadro ditu, eta Zubillagan dago. MIREIA BIKUÑA

**TAMAINA ASKOTARIKOAK**

Olaburu zentroak 1.800 metro koadro ditu bi solairutan. Behekoan 200 metro koadroko bi tailer daude eta gainerako metro koadroak, lehen solairuan. Eraberritze lanak bukatuta, tailerretarako zazpi lokal eta zerbitzuetarako sei bulego edukiko dituzte. Lokalak tamaina askotaritakoak dira.

**ETXE BAKOITZEAN BI FAMILIA**

Enpresa berrien sustapenerako lau laguntza mota ematen ditu Udalak: enpresa ideiaren bideragarritasun azterlanerako laguntza (300, 600 edo 900 euro); Olaburun lokal lagapena egiteko laguntza; *Saiatu* programa garatzeko laguntza; eta laguntza bereziak. Laguntza horietakoren bat eskuratu gura dutenek bete beharreko baldintzak dira: Oñatikoa izatea edo Oñatin erroldatua egotea; Oñatikoa ez izan arren sortu berri duen enpresa Oñatin helbideratuta egotea; eta, enpresak, gehienez, urtebete izatea. Gainera, hamar langile baino gutxiagoko enpresa izan beharko du, eta kapital soziala 120.000 euro baino txikiagoa.

**LANGILE BAKOITZEKO 1.000 EURO**

Enpresa berrien sustapenerako araudian zehazten duten moduan, enpresa berriak abian jartzeko sortutako lanpostu bakoitzarengatik dirulaguntza jasoko dute. Horren harira, enpresak alta ematen duenean, langile bakoitzarengatik 1.000 euro jasoko ditu. Langileen kontratua partziala bada, dirulaguntza proportzionala izango da. Urte bakoitzean langileri kopuruan gehikuntza balego, langile bakoitzeko 1.000 euro jasoko luke enpresak. Langileberri bakoitzeko laguntza hiru urtera arte luzatuko du Udalak.

**Jesus Mari Ugarte** > Enplegu teknikaria

## "17 urtean, 20 tailer eta zerbitzu enpresa pasa dira Olaburu zentrotik"

**M.B.** > OÑATI

**Jose Mari Ugarte Udaleko Enplegu teknikaria da. Orain dela 17 urte Olaburu zentroa zabaldu zutenetik, sortu berri diren enpresekin dihardu lanean, besteak beste. Olaburun egingo dituzten lanen eta Udalak enpresa txikiei ematen dien dirulaguntzen gainean egin dugu berba harekin.**


M.B.

**Zergatik erabaki duzue Olaburu zentroa eraberritzea?**

Zentroa zabaldu genuenean enpresa ekimen gehienak industria arlokoak ziren eta tailerrak eskatzen zizkiguten. Egun, baina, zerbitzu arloko ekimenak dira nagusi, eta bulegoak behar dituzte. Horregatik guztiagatik, soldadura ikastaroak ematen genituen 300 metro koadroko lokalean lau bulego eta tailerra egokitzea erabaki dugu.

**1993an zabaldu zenuten zentroa. Ze helbururekin?**

Ikusi genuen enpresa txikiendako oso zaila zela lokala lortzea. Industrialdeek promozioak egiten zituzten, baina batzuek ezin zuten alokairua ordaindu. Orduan, tailerrak eta bulegoak prezio merkean alokatzeko zentroa sortzea pentsatu genuen.

**Eta, helburuak bete dituzue?**

Nik esango nuke baietz. Ordutik, 17 urtean, 20 tailer eta zerbitzu enpresa egon dira Olaburun. Egun, zazpi ditugu gurekin. Olaburutik pasa ondoren, enpresa askok euren bidea jarraitu dute lokalak erosiz. Beste batzuk ordea, enpresa txikia utzi eta handiagoetara joan dira.

**Enpresa sortzen dutenek badakite Olaburu zentroa erabiltzeko aukera badutela?**

Benetako interesa dutenak informazio eske etortzen dira. Dena den, herritarren artean galdetuta, oso gutxik jakingo dute zer den Olaburu eta non dagoen. Horren harira, herritarrei informazioa banatzeko, Olaburu zentroaren gaineko triptikoa egin dugu. Udalak ematen dituen zerbitzuen eta dirulaguntzen nondik norakoak azaltzen ditugu. Dena den, norbaitek bestelako informazioa behar badu, Enplegu Zerbitzuko 943 03 77 00 telefonora dei dezake, edo *enplegu@oinati.net* helbidera mezua idatzi.

**JAIAK**

# Errekaldeko goitibehera txapelketa domekan

900 metroko jaitsiera egingo dute eta izenematea zabalik dago barikura arte

**M.B.** > OÑATI

Oñati Motor taldeak Errekaldeko Jai batzordearen laguntzarekin lehenengo goitibehera txapelketa antolatu du domekarako.

Jaitsierak 900 metro izango ditu, Larrain Gain elkartean hasi eta Moiua kalean dagoen Telefonicaren eraikinaren pareraino. Parte-hartzaileek bi jaitsiera egingo dituzte. Dena den, goitibehera kopuruaren arabera beste jaitsiera bat egiteko aukera ez dute baztertzen antolatzaileek.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Goitibehera jaitsiera 12:00etan hasiko dute. Hori horrela, Errekaldetik Larrañara doan errepidea 11:00ak aldera itxiko dute. Antolatzaileek diote 14:30erako bukatuko dutela proba.

Parte-hartzaileek egubakoitzeko 14:00ak arte dute zabalik izena emateko epea. Horretarako bi aukera dituzte: *escuderiaudana@garitoracing.net* helbidean edo 635 71 23 86 telefonoan.

## oharrak

HITZALDIA

**> Birziklapenaren gaineko hitzaldia ikastolan**

Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak taldeko Amaia Otazok hitzaldia egingo du Txantxiku ikastolan hilaren 19an, 18:30ean.

JAIALDIA

**> Gurasoendako jaialdia Elkar Hezi ikastetxean**

Hilaren 27an eta 28an gurasoendako jaialdia antolatu dute; besteak beste, antzerkia eta auzo-afaria egingo dituzte.

ZOZKETA

**> San Migel txiki jaietako zenbaki sarituak**

Jaietako azken egunean egindako zozketako zenbaki sarituak dira: lehen saria (Igeldoko Maddiola landaetxean aste bukaera), 6.339 zenbakiari; bigarren saria (Lukas delikatessen etxeko jaki saskia) 7.321 zenbakiari; eta hirugarren saria (25 kiloko patata sakua) 7.400 zenbakiari. Txartelak Izarraitz tabernara eraman behar dira.

**ARETXABALETA** > JAIAK

# Andramaixetako kartel eta esaldi lehiaketak deitu dituzte

Esaldiak ekainaren 30erako aurkeztu behar dira eta 12 urtetik gorakoek parte har dezakete; kartelak, ostera, uztailaren 2rako

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Martxo inguruan hasi zen Jai batzordea Andramaixak gertatzen eta dagoeneko gertu dauka egitaraua. Jaietako aurrekontuak murrizketa handia izan du eta urteroko ekitaldi batzuk kendu egin behar izan dituzte; tartean, suzko erruberen ikuskizuna. Hala ere, jai girorik ez da faltako Ama Birjinaren izenean abuztuan egiten diren jaietan.

**KARTEL LEHIAKETA**

Andramaixak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du egunotan Kultura Sailak. Edozeinek parte har dezake eta teknika librea izango da. Baldintza bakarra dago, honako esaldia agertzea: *Andramaixak 2010 Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaleta*.

Kartelaren neurriak izan behar du 50x70 zentimetrokoa, edo, disketean ekarriz gero, DIN A-3. Egilearen datuak dituen kartazal itxia aurkeztu behar da lanarekin batera Arkupe kultura etxean edo udaletxean uztailaren 2a baino lehen. Epaimahaiaren erabakia uztailaren 6an jakinaraziko dute eta saridunak 300 euro jasoko ditu. Antolatzaileek hala erabakiz gero, erakusketa egingo dute lan guztiekin.

**ESALDI LEHIAKETA**

Bestalde, Prebentzio Zerbitzuak jaiak girotuko dituen esaldi lehiaketa deitu du. Ekainaren 30a bitartean aurkeztu behar dira Arkupen edo udaletxean, egileen datuekin batera.

Lehiaketan 12 urtetik gorako aretxabaletarrek parte har dezakete; taldeka edo bakarka. Gura beste esaldi aurkez daitezke, baina ez dituzte onartuko neurriz kanpoko kontsumoa bultzatzen dutenak, ezta jarrera sexistak bultzatzen dituztenak ere.

Sariei dagokienez, egitarauan erabiliko dutena asmatutakoari 120 euro emango dizkiote eta pegatinak egiteko erabiliko diren esaldiak egindakoei 60 euro. Irabazleen berri uztailaren 6an emango du epaimahaiak.



Koadrilak bazkaltzen Herriko Plazan iazko Andramaixetan. M.A.

**ERLIJIOA** > OSPAKIZUNA

# Egubakoitzean ospatuko dute Santa Rita eguna agustindarren komentuan

Eguna zapatuan da, hilak 22, baina egun bat aurreratzea erabaki dute; bi meza esango dituzte (11:30 eta 18:00)

M.A. > ARETXABALETA

Maiatzaren 22an, zapatua, Santa Rita eguna da eta Aretxabaletako agustindar mojek eta hainbat herritarrek urtero ospatzen dute. Aurten, baina, egun bat aurreratuko dute ospakizuna eta egubakoitzean egin, hilak 21. Bi meza esango dituzte egun horretan: 11:30ean eta 18:00etan. Bestalde, eguenean hasita bederatziurrena egiten dabiltza agustindarren komentuan (19:00).

**ARROSAK NORBERAK EROAN**

Italian jaiotako emakumea (1381, Roca-Porrena) ezinezko kontuen zaindaria da eta maitasun handia diote gurean. Ohitura da haren omenezko meza esan ostean arrosak bedeinkatzea, gero etxera eroan eta babesgarri izateko. Arrosa horiek lehen mojek ematen bazituzten ere, orain norberak eroan behar ditu.

> ERRETIRATUAK

## Basotxo inauguratuko dute eguaztenean, hilak 19, berrikuntza lantxo batzuk egin eta gero

Basotxo erretiratuen elkarteko egoitza txukuntzen ibili dira hil honen hasieran eta berrikuntza lantxo batzuk egin ostean inauguratu egingo dute. Ekitaldia eguazten eguerdian da, hilak 19, eta alkatearekin batera Jaurlaritzako ordezkariak izango dira.

Basotxoko tabernaren ardura, gainera, Durangoko Txukunberri Osoko Zerbitzuak enpresak hartu du eta horren asmoa da taberna indartzea.

> KIROLAK

## Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatutako mendi martxa ekainaren 20an izango da

Bi urtean behin antolatzen du mendi martxa Murrukixo Mendizale Elkarteak eta arduradunek jakinarazi dute ekainaren 20an izango dela. Herritarrak galdezka dabiltzalako eman dute horren berri, baina gehiagorik ez dute aurreratu gura oraindik. Antolakuntza lanetan dabiltza orain buru-belarri eta ekainaren hasierarako kontu guztiak lotuta izango dituzte.

**ESKORIATZA** > BERTSOLARITZA

# Bertso jaialdia egingo dute bihar kiroldegian 10 eta 12 urte bitarteko 200 bat gaztetxok

Ikasturtean zehar landu eta ikasi dutena erakutsiko diete guraso eta lagunei, gai ezberdinak dituzten bertsoak abestuta

MIRARI ALTUBE > ESKORIATZA

Bihar, hilak 18, bertso jaialdia eskainiko dute herriko hainbat neska-mutikok kiroldegian (17:00). Arizmendi ikastolako Almen gunetik bosgarren eta seigarren mailetakoak etorriko dira eta Luis Ezeiza herri eskolatik laugarren eta seigarren mailetakoak; 200 bat gaztetxo.

**GIPUZKOAKO HERRI GEHIENETAN**

*Ikastetxeak bertsotan* ekimen barruan dago biharko jaialdia eta maiatza eta ekaina bitartean Gipuzkoako herri gehienetan egingo dituzte halakoak. Izan ere, Lehen Hezkuntzako 10 eta 12 urte arteko ikasle guztiek lantzen dituzte bertsoak ikastetxean. Baita gustura landu ere. Halaxe baieztatu du Nerea Urra irakasle arrasatearrak: "Oso gustura ibiltzen dira bertsoak asmatzen. Egia da batzuek samurtasun handiagoa dutela, baina gustuko ikasgaia da, orokorrean".

**TALDEKA KANTUAN**

Bihar taldeka abestuko dituzte aurretik ikastetxean asmatutako bertsoak. Gai ezberdinak agertuko dira taula gainean gelaka aukeratu dituzte-eta; gela batek esaterako, oporretan aspertu egiten direla eta gurago dutela ikasten egon hartu du gai eta ironia eta umore handiarekin asmatutako bertsoak eskainiko dizkie ikusleei.

Bertsolaritzara hurbiltzeko lehen pausoak eman dituzte bihar bertsotan jardungo duten gaztetxoek: nondik hasi bertsoak egiten; doinu ezberdinak ikasi; errima landu... Gustuko dutenek gehiago sakontzeko aukera izango dute gero eta gainerakoek oinarria, behintzat, izango dute.

Hala, lotsa alde batera aldendu, eta guraso, senide eta lagunen aurrean kantuan egiteko gertu azalduko dira bihar.

> UDALA

## Behin betiko onartu du udalbatzak 2010eko aurrekontua

Joan den astelehenean, hilak 10, egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak behin betiko 2010eko udal aurrekontua. Ogasun batzordeak egindako proposamenean oinarrituta onartu zuen eta aldaketa bakarra egin diote martxoaren 31n behin-behinean onartutako aurrekontuari: 3.000 euroko partida berria izendatu, guraso elkarteendako dirulaguntza kontzeptuan.

Bost milioi euro pasatxoko aurrekontua Udal Gobernuko kideen botoekin eta PSE eta EA alderdietako zinegotzien aldeko botoekin onartu zuten. Horren aurrean, Pedro Lasagabaster alkatea pozik azaldu zen agintaldia hasi zutenetik babes handien lortu duen aurrekontua izan delako onartutakoa.

> GIZARTE ZERBITZUAK

## Nagusien udako egonaldietarako eskaerak egiteko epea

Etxean bizi diren nagusiendako eta ezintasunak dituztenendako udako egonaldiak antolatzen hasi dira Gizarte Zerbitzuak, haien senideek atseden har dezaten. Uztail, abuztu eta irailerako dira aldi baterako egonaldiok eta eskaerak orain aurkeztu behar dituzte Gizarte Zerbitzuetan. Hona datak: abuztuko egonaldia eskatzeko azken eguna, maiatzak 28; eta irailekoa eskatzeko, ekainak 11.

Plazak izendatzeko orduan lehentasuna emango diete urtean zehar egonaldirik egin ez dutenei. Era berean, nagusiaren mendekotasun maila ere hartuko dute kontuan.

Izena emateko Eskoriatzako Gizarte Zerbitzuetara joan behar da aurrez txanda hartuta: 943 71 31 36.



Camilo Vazquez Magia Galan trikimailua egiten. JOSETXO ARANTZABAL

**ELGETA** > MAGIA MOSTRA

# Camilo Vazquez magoak jaso du publikoaren saria

Zapatuko galako azken ikuskizuna egin zuen, eta domeka eguerdian hainbat trikimailu egin zituen jendartean herriko kaleetan barrena

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Sei mago elkartu ziren aurreko aste bukaeran Elgetako Magia Mostran. Hamaika trikimailu egin zituzten, eta zur eta lur utzi zuten bat baino gehiago.

Urtero legez, baina, Mostrako ikusleek euren iritzia emateko aukera izan dute, eta denen artean Camilo Vazquez mago galiziarraren lana saritu dute. Zapatuko galan eta domekan eguerdiko kale ikuskizunetan hartu zuen parte Vazquezek. Albistea emateko deitu diogunean Galizian harrapatu dugu. "Ez didazu, esan!", izan da bere lehenengo erreakzioa. "Oso gustura egon naiz Elgetan, eta gainera publikoaren saria eman badidate, pentsa!". Adierazi du ilusio handia egin diola sariak, eta oso gustura egon zela Elgetan. "Arrasate, Elgoibar eta Soraluze ezagutzen nituen aurretik, baina Elgetan ez nintzen sekula egona. Iritsi eta lehenengo sorpresa herrian duzuen aretoan izan zen. Zoragarria da! Taberna da, handik gutxira antzokia... eta publikoa bertatik bertara daukazu. Zoragarria benetan!".

**ASTE BUKAERA MAGIKOA**

Vazquezen hitzetan ondo aprobetxatutako aste bukaeran egiten dute Elgetan. "Bi gala, gainera baliabide tekniko egokiekin, kaleko ikuskizunak... nik uste dut Mostra ona izan dela honakoa. Etxean moduan sentitu gara magoak ere".

**Boto zenbaketa**

**PUBLIKOAREN SARIA 2010**

| | |
|---|---|
| **1.** Camilo Vazquez | 60 boto |
| **2.** Javier Santos | 20 boto |
| **3.** A. de Figueiredo | 16 boto |
| **4.** Miguel Gomez | 12 boto |
| **5.** Jon Zabal | 10 boto |
| **6.** Woody Aragon | 8 boto |
| **7.** Rafael Benatar | 8 boto |

**ANTZUOLA** > UDALA

# Sagastiko biribilgunea egiten duten bitartean pazientzia izateko eskatu du Udalak

Alkateak eskerrak eman nahi dizkie Kalegoiko lanetan Balzersen pasabidea egiteko lursailak utzi zituzten jabeei

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Sagastiko inguruan biribilgune bat egiteko tramiteak bukatuta, laster hasiko dituzte lanak. Hori dela eta, Udalak eskatu die herritarrei ahalegina egiteko eta obrak martxan dauden bitartean pazientzia izateko. Horrez gain, zirkulazio arauak errespetatzea eta behin biribilgunea amaituta egoera berrira moldatzea ere eskatu du alkateak. "Badakigu lehen eraginak herritarrek jasaten dituztela, eguneroko ohiturak aldatzeraino", azaldu du.

Antzuolako Udala herriko mugikortasun eta zirkulazio arazoak konpontzeko lanean dabil azken urteetan. Oinezko eta ibilgailuen guneak zehaztu eta zirkulazioa antolatzea da Udalaren asmoa.

**KALEGOIKO OBRAK**

Bide batez, alkateak aukera aprobetxatu du Kalegoiko obrak iraun zuen bitartean herritarrek izan zuten jarrera eskertzeko. "Sortutako eragozpenengatik barkamenak eskatu nahi dizkiet; eta Balzers inguruan pasabide alternatiboa egiteko sailak utzi zizkiguten jabeei eskerrak eman nahi dizkiegu", adierazi du.

**ARAMAIO** > JAIAK

# Ez da inor aurkeztu jaietako esaldi lehiaketara

San Martin festei begira, jaietako batzordeak bilera egingo du datorren astean; hain justu, hilaren 26an, 19:00etan, udaletxean

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

San Martin jaiei begira Aramaioko Udalak deitutako esaldi lehiaketara ez da inor aurkeztu eta beraz ez dago lelorik oraingoz uztaileko jaiak iragartzeko. Bien bitartean, jai batzordea lanean dabil jaiak prestatzen. Hainbat bilera egin dituzte eta dagoeneko badute zerbait lotuta jaietako egitarauarako. Hala ere, Udaletik ez dute ezer aurreratu nahi izan momentuz. Ainara Inuntziaga kultur zinegotzia eta Itxaso Aspiazu kultur teknikariarekin batera, Aramaioko kultur elkarteetako ordezkariek osatzen dute jaietako batzordea. Edozelan ere, batzordea herritar orori zabalik dagoela gogoratzen dute. Hurrengo bilera hurrengo astean egingo dute, maiatzaren 26an, 19:00etan udaletxean. San Martin jaiak uztailaren 2tik 11ra bitartean ospatuko dira.

Bestalde, kartel lehiaketarako lanak entregatzeko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik. Adinaren arabera, bi maila bereziko dituzte: 16 urtetik beherakoendako eta nagusiendako. Gaztetxoen arteko irabazleak 60 euroko bonua jasoko du Elkar dendetan erabili ahal izateko. Nagusien sari nagusia, berriz, 150 euroko da. Interesatuek udaletxean, 945 44 50 16 telefono zenbakian jaso ditzakete lehiaketaren inguruko argibide gehiago..

**EKAINEAN KORTEZUBIRA**

Bestalde, Zuiako koadrilak antolatuta, bertako faunaren Basondoko aterpetxera, Kortezubin, ikustera joateko irteera izango da ekainaren 6an. Aramaiotik irteera 09:30ean izango da eta itzulera, berriz, 14:30ak aldera. Plaza mugatuak dira eta izenemateko epea eguaztenean, maiatzaren 19an, itxiko dute. Irteeraren prezioa, 7 euro gaztetxoendako eta 9 euro nagusiendako. Udaletxean eman daiteke izena.

**LEINTZ GATZAGA** > TXAPELKETA

# Pilota txapelketa jokatuko dute domeketan, atzo hasita

Hamabostean behin dira partiduak eta herriko pilotari gazteek jardungo dute

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Dorletako Ama Birjina txapelketa hasi zuten atzo herriko pilotalekuan. Pilota entrenatzaile Mauri Zubillagak antolatuta, herria girotzea du helburu eta domeketan jokatuko dituzte partiduak, hamabostean behin.

**FINALAK, HERRIKO JAIETAN**

Herriko pilotari gazteak entrenatzeko ardura hartu zuen ikasturte hasieran Zubillagak, eta orain txapelketa antolatu du, ikasitakoa erakutsi eta jokatzeko aukera izan dezaten gatzagar horiek.

Domeka goizetan izango dira partiduak (10:30 aldera) eta trikitilariek girotuta hasiko dituzte: "Pilotaren alde edozer egiteko gai naiz, baina Gatzagaren alde oraindik gehiago", dio Zubillagak. Hori horrela, herria girotzea ere badu helburu antolatutako txapelketak. Bukaera herriko jaietan izango du eta orduantxe jokatuko dituzte finalak: "Pilotari trebeenak edo egoera fisiko onenean daudenak izango dira finalean", esan du entrenatzaileak.

**DEBAGOIENEKO PILOTARIAK**

Gatzagarrak dira Dorletako Ama Birjina txapelketa jokatzen hasi diren sei bat gazte, eta gainerakoak debagoiendarrak: eskoriatzarrak, arrasatearrak eta bergararrak. "Aramaioarren bat ere baliteke etortzea", jakinarazi du Zubillagak. Adinaren arabera sailkatuta jokatuko dituzte partiduak, benjaminetan hasi eta gazteak bitartean. Atzo zazpi partidu izan ziren pilotalekuan eta maiatzaren 30ean beste horrenbeste izango dira.



> ZABALETA AZKARRENA
Bigarren txandan tronpoa egin arren Zabaleta izan zen Gorlan onena > 22-23



> MONDRA NAGUSI
Mondrak 0-3 irabazi zion atzo Aloña Mendiri, Azkoagainen > 24



> ZEGAMA-AIZKORRI
Debagoiendarrek lan txukuna egin zuten Zegama Aizkorrin > 25

**ATLETISMOA** > KROSA

# Varela eta Ramos izan ziren azkarrenak Otala Zelain

Oñatiko bi korrikalariek denbora onena egin zuten Urkuluko urtegiari (8.410 m) buelta ematen

Nagusien probaren aurretik benjamin, alebin eta infantil mailetako lasterketak egin zituzten

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA

Erromeriarako girorik ez zegoen arren, Otala Zelaiko 32. herri krosak erantzun ona izan zuen korrikalarien artean. Gaztetxoen eta nagusien mailako probatan parte-hartzaile asko egon ziren, eta guztietan azkarrenak bi oñatiar izan ziren, Yerai Varela (27.30) eta Marisol Ramos (33.02).

**AZKEN ALDAPARAKO INDARRAK**

11:05ean hasi zen senior mailako krosa. Zelaira igotzeko bidegurutzean zegoen irteera. Handik behera, Urkulu aldera hartu zuten guztiek, 8.410 metro egiteko.

Hasieratik lau korrikalari jarri ziren buruan. Eurek jarri zuten erritmoa. Lasterketa erdira heldu aurretik, Yerai Varela, Iban Letamendi eta David Gartzia geratu ziren buruan.

Euren arteko lehia gogorra izan zen. Lasterketako une erabakigarrira heldu orduko –urtegitik helmugaraino dagoen aldapa–, Oñatiko bi korrikalariak ziren lasterketa-buru. Varelak indarrak gorde zituen azken aldapan erritmo aldaketa egin eta helmugara bakarrik heltzeko. "Estrategia garbi nuen: bukaerarako indarrak gorde ahal izateko erritmoa jarri. Azkeneko aldapa oso luzea eta gogorra da, eta fresko ez bazaude, akabo", esan zigun Yerai Varelak. Haren atzetik sailkatu ziren Iban Letamendi (27.40) eta David Gartzia (28.06).

**RAMOS KONTRARIO BARIK**

Emakumeen proban, Marisol Ramosek ez zuen areriorik izan. Oñatiarrak 3.14 minutu atera zizkion Irma Berezibarri, eta 7.49 minutu Olaia Uribetxeberriari.

Bestalde, 10:00etan hasita, gaztetxoen lasterketak jokatu zituzten. Benjamin (400 metro), alebin (800 metro) eta infantil (1.200) mailetako lasterketak egin zituzten mutilek eta neskek Otala zelaiari itzuliak eginez.

## Otala Zelaiko kroseko sailkapenak

**Senior mutilak**

| | |
|---|---|
| **1.** Yerai Varela (Oñati) | 27.30. |
| **2.** Iban Letamendi (Oñati) | 27.40. |
| **3.** Diego Gartzia (Durango) | 28.06. |

**Senior neskak**

| | |
|---|---|
| **1.** Marisol Ramos (Oñati) | 33.02 |
| **2.** Irma Berezibar (Aretxabaleta) | 38.16 |
| **3.** Olaia Uribetxeberria (Aretxab.) | 40.51 |

**Benjamin mutilak**

**1.** Jokin Uribetxeberria (Aretxabaleta)
**2.** Josu Aizpurua (Aretxabaleta)
**3.** Oihan Ozaeta (Arrasate)

**Benjamin neskak**

**1.** Elene Errasti (Aretxabaleta)
**2.** Lide Larrea (Arrasate)
**3.** Gorane Larrañaga (Zestoa)

**Alebin mutilak**

**1.** Daniel Martinez (Aretxabaleta)
**2.** Kerman Garmendia (Aretxabaleta)
**3.** Beñat Axpe (Bedoña)

**Alebin neskak**

**1.** Garazi Larrea (Arrasate)
**2.** Maitane Hiria (Arrasate)
**3.** Miren Antxia (Aretxabaleta)

**Infantil mutilak**

**1.** Julen Garai (Aretxabaleta)
**2.** Ismael Costa (Zestoa)
**3.** Beñat Zubinas (Zestoa)

**Infantil neskak**

**1.** Udane Cabanillas (Zestoa)
**2.** Leire Zubillaga (Aretxabaleta)
**3.** Sara Balentziaga (Zestoa)







Yerai Varela eta Marisol Ramos oñatiarrak Otala Zelaiko helmugara heltzen.



Nagusien probako lehen hiru sailkatuek sariak jaso zituzten, eta argazkia egin zuten.



Benjamin, alebin eta infantil mailetako probetan parte hartu zuten neska-mutikoak sariak jaso ondoren. ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL

**AUTO LASTERKETAK** > XIX. AUTO IGOERA

# Bigarren txandan tronpoa egin arren, Zabaleta Gorlan onena

Lehenengo txandan egindako 2:51:48 denbora nahikoa izan zuen irabazteko

Oñatiko David Ardions lehenengoa izan zen bere klasean, eta seigarren orokorrean




**EURIPEAN** Zabaleta Lola BMWarekin, entrenamenduko txandan, bide bazterrean zeudenen animuak jasotzen. XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Zapatu arratsaldean eguraldiak ez zuen Gorlako bide bazterretan lasterketa jarraitzera animatzen. Hori horrela, beste urte batzuetan baino zale gutxiago izan zen bihurguneetan, baina horrek ez zuen pilotuen motibazioa txikitu. Iaz pilotuek zalantzak izan zituzten ze gurpil erabili, bustikoak ala lehorrekoak, baina zapatuan ez zen horrelako buruhausterik izan: "Bigarren txandan bustikoak kentu eta mistoak jarri genituen, baina denbora bera egiteko", adierazi zuen lasterketa amaieran etxean korritzen zuen Markel Agirrek.

Entrenamenduko txandan egin zuen euri gehien, eta lehengoan ateri eutsi zion. Orduan egin zuen Aitor Zabaletak arratsaldeko denbora onena (02:51:48), bigarren sailkatu zen Angela Vilariñori bi segundoko tartea atereaz (02:53:23). Lasterketan zehar ez zen istripurik egon. Entrenamenduko txandan Amets Salvatierraren Peugeot 205 autoa geratu egin zen ezkerretara egiten duen lehen paellan, eta komisarioak bandera horia atera behar izan zuen gainontzeko pilotuei auto bat bide bazterrean zegoela jakinarazteko; han zeuden ikusleak haserre, komisarioak dezenteko pazientzia erakutsi behar izan zuen.

Ikusleen txaloak Kataluniatik etorritako Sergio Morillarendako izan ziren, zuzenguneetan ere BMW autoa zeharka eraman zuelako.

Ibarreko gainontzekoen artean, Ruben Nogueiras (Silver) ez zen oso gustura geratu egindako bosgarren postuarekin (03:01:66). Lan ona egin zuen bere herrikide de David Ardionsek, N klasean lehenengo (03:06:82); eta Asier Mugarza bederatzigarren izan zen sailkapen orokorrean (03:13:99). Ondoren etorri ziren Markel Agirre (03:20:22), Aitor Arnaiz (03:24:37), Igor Orobengoa (03:28:78), Igor Calleja (03:34:34), Roberto Gomez (03:34:85), Sergio Porcel (03:37:45) eta Iñigo Lizarralde (03:39:22).

Hura izan zen, hain zuzen, gusturen geratu zena, debut ezin hobea egin zuen Iñigo Lizarraldek. Debut ezin hobea diogu, pozik amaitu zuelako egindakoarekin, eta lehenengo lasterketan horrek balio duelako –autoa etxera osorik eramatearekin batera. Lehenengo txanda egin eta poltsikokoa hartu zuen lagunei bizitakoa kontatzeko. Hurrengoan, baina, lehenago kaskoa kendu.

## DEBAGOIENEKO PILOTUAK



**Igor Orobengoa**
Arrasate

"Autoz aldatu dugu, eta aurten Jaraman egiten ari diren lasterketetan esku hartzea da gure helburua. Gure erronka hor dago, eta Gorlara autoa probatzera eta sentsazioak hartzera etorri gara, nahiz eta erabat ezberdina den Gorlan ibili edo zirkuitu barruan ibili. Gora eta behera ibiltzeko asmoz etorri gara, ez gehiago".



**Ruben Nogueiras**
Oñati

"Ezingo dut esan denboraldi hasiera onekin pozik nagoenik, Udanan bosgarren izan nintzelako, eta Gorlan ere postu bera egin dudalako. Badakit Zabaletarekin eta Angela Vilariñorekin lehiatzea oso zaila dela, baina aurrerago egon nahi nuen. Lehen ere esanda daukat euritan ez naizela oso ondo moldatzen, eta... ".



**Markel Agirre**
Bergara

"Iaz moduan, aurten ere lasterketa biribila izan da. Entrenamenduetan euskarri bat hautsi dugu, baina ondoan nituen lagunei esker denboraz konpondu dugu dena eta gainera nire klasean bigarren denbora onena egin dut. Iaz moduan, aurten ere lagun baten autoarekin korritu dut, eta eskerrak hari ere".



**Iñigo Lizarralde**
Bergara

"Nire debut eguna izan da gaurkoa, eta oso-oso gustura amaitu dut. Gaur gutxik egingo dute nik bezain ondo lo, benetan. Nahiz eta bustita egon lehenengo entrenamendu saiotik hasi naiz gozatzen. Denborei begira ibiliz gero asko nuen galtzeko, baina nire klasean oso txukun ibili naiz, hortan, ezin hobeto".



**David Ardions**
Oñati

"Aspaldi honetan oso gustura nabil euritan korritzen, eta gaur ere halaxe ibili naiz. Clioarekin badakit lehor dagoenean potentzia falta zaidala aurrean ibiltzeko, baina bustita badago aurrerago ibil naiteke. Nire klasean lehenengo izanda ezin dut gehiago eskatu. Egia esanda, sorpresa izan da denboraldia horren ondo hastea".



Alberto Alonso, Gorlako igoerako irteera puntuan. JOSETXO ARANTZABAL



Javier Mur Opel Kadet barruan. J.A.



Ikusgarria Iñaki Alberdiren Porche GT3 autoa, Gorlako igoerako bigarren paellan. XABIER URTZELAI



Jose Maria Ubietaren Ford Sierra Cosworth-ak ezin izan zuen lasterketa amaitu. XABIER URTZELAI

**Aitor Zabaleta** > Pilotua

## "Norbait olioa galtzen dabil, eta hori ezin da onartu"

**X.U.** > BERGARA

**Lasterketa amaieran Bergarakoa pozik zen eguneko denbora onenaren jabe zelako, baina ondo zekien zelako ihesaldia egin zuen, tronpoa egin arren BMW Lola autoa osorik eraman zuelako garajera.**



X.U.

**Ohitura txarra hartzen ari zara. Ez Udanan eta ez hemen ez dituzu txanda guztiak amaitu.**

Halaxe da, baina ez da gure erruagatik izan. Bai Oñatin, bai Urrakin eta bai hemen olioa izan dugu errepidean. Pilotuen artean sinpatikoren bat dugu, beste zerbait ez esatearren, eta autoan olioa galtzen dabil; ez dakit nor den baina ondo begira dezala autoa, eta konpon dezala behingoz, ezin garelako horrela ibili. Kezka hori ez daukat nik bakarrik, pilotu guztiak gaude horrekin nazkatuta. Errepidea bustita dagoenean korritzea ez da broma, eta errepidean norbait olioa galtzen badabil, ba pentsa.

**Tronpoa, beraz, olioa zapaltzerakoan egin duzu.**

Egia esateko azkar nindoan, baina honezkero Gorlako igoera ezagutzen dudala esan nezake, eta ondo dakit bihurgune bakoitza autoarekin zelan hartu behar dudan. Olioagatik izan da, bai.

**Tronpoa eginda ere, lehenengoa.**

Baina ez pentsa erraz ibili naizenik. Beste pilotuekin alderatuta bi segundotako tartea nuen, segurtasun modura. Lehenengo eta bigarren txanden artean errepidea ez da lehortu, eta ezin lehorreko gurpilak ipini. Errepidea erdi bustita, olioa... lehorreko gurpilekin irtenez gero irabazteko gutxi, eta galtzeko asko. Hala, tronpoa egin dudanean ordura arteko lana galdu dut, baina lehenengo txandan egindako lanak balio izan dit.

**Nahikoa zorte bazterren bat jo ez duzunean.**

Bai, autoak ia bost metro luze dituelako. Horrelako luzera duen auto batekin Gorlan tronpoa egin eta bazterren bat ez jotzea pozteko modukoa da, bai.

**ERRUGBIA** > GENERO BERDINTASUNAREN ALDE

## Bi ordu pasa egon ziren lau talde tag errugbian jokatzen

**X.U.** > ARRASATE

Arrasate Errugbi taldeak genero berdintasunaren alde egindako Tag errugbi txapelketak arrakasta izan zuen zapatuan. Euripean –erretratuan ikusten den moduan– 40 lagun animatu ziren errugbi modalitate horretan jokatzera.

Hamar laguneko lau talde osatu zituzten, eta modalitate horren bereizgarri moduan, jokalari bakoitzak bi zapi zeramatzan atzean. Kontaktu barik jokatzeko modua da, plakaketa bat egin beharrean kontrarioak nahikoa duelako zapia lapurtzea.

**GAZTE ETA BETERANO**

Txapelketan izan ziren egungo jokalariak eta baita Herensugeak taldeko jokalari beteranoak ere. Eurekin batera, baina, errugbian sekula jokatu ez zuen jendea ere animatu zen.



Arostegi entsegua egiten, baina zapia lapurtu zioten ordurako. J.A

> ESKUBALOIA

### Ford Mugarriren eta Arrateren arteko finalerdia bertan behera, epailerik azaldu ez zelako

"Sekula ere ez zait horrelakorik gertatu. Epailea berandu azaldu eta horrelakoak bai, baina ez etortzea...", adierazi digu Ford Mugarriko entrenatzaile Edu Orgazek zapatuan Eibartik jokatu barik bueltatu eta gero. Bi taldeak gaur, astelehena, jarriko dira harremanetan, partidua noiz jokatu erabakitzeko. Eta jokoan dagoena ez da makala, kopako finalerako txartela, alegia.

**ANTZUOLAKO UDAL ETXEGINTZA, S.A**

**ETXEAK SALGAI**

Lizarraga kaleko 9ko lehenengo solairuko ezkerrean kokatuta dagoen etxebizitzaren salmenta prozedura ireki (enkante) bidez.

**Lehiaketaren oinarria** 135.000€ izango da onartuko den gutxieneko eskaintza. Lizitatzaileek oinarri hau gorantza hobetu ahal izango dutelarik.

**Behin behineko bermea**: Ez dago.

**Proposamenak aurkezteko azken eguna:** 2010eko ekainaren 1a.

**Dokumentazioa:**
Antzuolako Udal Etxegintza S.A.ren bulegoetan edo Antzuolako Udaletxean; Herriko Plaza 8an (10etatik 14etara)

Antzuolan, 2010eko maiatzaren 13a.

*ANTZUOLA UDAL ETXEGINTZAKO PRESIDENTEA*

**OHOREZKO ERREGIONALA** > DERBIA AZKOAGAINEN

# Bigarren zatiko lehen hamar minutuetan erabaki zuen Oñatiko derbia Mondrak

ALOÑA MENDI
**0-3**
MONDRA

**Aloña Mendi** > Mikel, Gorka,Endika (Xabi, 72. min.),Julen (Mikel, 68. min.), Jon, Aritz (Xabi, 62. min.), Palacios, Unai, Iñigo (Josu, 57. min.), Jagoba, eta Astigarraga.

**Mondra** > Mikel, Azpeitia (Julen, 80. min.), Zabaleta, Arregi, Kepa (Jokin, 61. min), Andres, Xabi (Maikel, 71. min.), Ekain, Jon (Gari, 71. min.), Keixi eta Lopez (Illart, 61. min.).

**Epailea** > Abencens jaunak zuzen zuen Azkoagaineko derbia. Anduaga eta Anual izan ziren marrazainak.

'Keixi'-k eta Lopezek gol bana egin zituzten 47. eta 54. minutuetan; Aloña Mendik gol aukera bakarra 91. minutuan egin zuen

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Bigarren zatiko 10. minuturako agortu zitzaizkion ideiak Aloña Mendiri Azkoagaineko derbian. Mondrak bi gol egin zituen tarte horretan (*Keixi*-k eta Lopezek) eta Oñatiko derbia erabakita utzi zuen. "Kolpe gogorra izan da guretako. Berdinketaren bila irten gara, baina defentsan huts batzuk egin ditugu, eta...", esan zigun bukaeran Aloñako jokalari Unai Arregik.

Mondrako entrenatzailea eta jokalariak pozik eta gustura zeuden amaieran. "Merezitako hiru puntu lortu ditugu. Emaitza eta markagailua justuak izan direla esango nuke. Aloñak baino hobeto jokatu dugu", esan zigun Jon Muruak.

**ALOÑAK BOLADA TXARRA**

Bi taldeendako puntuak inportanteak ziren. Maila eusteko puntuak batuta, sailkapenean ahalik eta ondoen bukatu gura dute. Gainera, Aloñak azken bi hilabetetako bolada txarrarekin bukatu gura zuen –ez du partidurik irabazi martxoaren 14tik–.

Hori horrela, bi taldeak indartsu irten ziren zelaira. Biei kosta egin zitzaien partiduari neurria hartzea, eta gol aukera garbiak egitea.

Lehen jaurtiketa, arrisku barik, Mondrak egin zuen hamargarren minutuan. Aloña, aldiz, 20. minutura arte ez zen Mikel atezainaren inguruetara heldu.

**ABANTAILARI EUTSI**

Zelai erdia kontrol barik zegoenean, heldu zen partiduko jokaldi eztabaidagarriena. Mondrako jokalari Xabi Pavon arean sartu eta lurrera erori zen 35. minutuan. Epaileak marrazainaren aginduz penaltia adierazi zuen. Aloñako entrenatzaileak eta zaleek biziki protestatu zuten, baina Jon Azpeitiak gola egin zuen.

Abantailarekin arrasatearrak berpiztu egin ziren, eta bigarrena egiteko aukera izan zuten kontraeraso baten, baina Arregiren eta Muruaren arteko bat-bikoa defentsak desbideratu zuen.

**ATSEDENAREN ONDOREN, BI GOL**

Aldageletatik bueltan erabaki zuen derbia Mondrak. 47. minutuan *Keixi*-k egin zuen bigarrena area ertzetik jaurtiketa egin ondoren. Aloñako atzeko lerroak gaizki defendatu zuen arrasatearren korner erdiraketa. "Atsedenean entrenatzaileak esan digu lehen kornerrean entseatutako jokaldia egiteko, eta asmatu dugu" esan zigun Muruak.



Jon Azpeitia golegilea eta Peña Barandakoak, Mondraren lehen gola ospatzen. JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren golak min handia egin zion Aloñari, eta erreakzionatzeko aukera izan aurretik, hirugarrena egin zuten arrasatearrek. Berriro huts egin zuen atzeko lerroan Aloñak, eta atezainaren aldaratze eskasa sarera bidali zuen Lopezek buruz. 54. minutua zen.

**BUKAERA ARTE, EZER EZ**

Handik aurrera ezer gutxi egin ahal izan zuen Aloñak. Pablo Diazek etengabe animatu zituen jokalariak, baina oñatiarrek ez zuten asmatu.

Mondrak, ordea, beste golen bat egiteko aukerak izan zituen. Garbiena Garik izan zuen 81. minutuan. Aloñaren aukera garbiena, eta bakarra, 91. minutuan izan zuen Unai Arregik, baina atezainak urrundu zuen baloia.

DERBIKO PROTAGONISTEN HITZAK



**Unai Arregi**
Aloñako jokalaria

"Kolpe gogorra izan da guretzako, irabazteko gogoa genuen-eta. Liga bukatzeko bi partidu falta dira, eta itxura ona eman nahiko genuke, azken bi hilabetetan ez dugulako garaipenik lortu".



**Jon Murua**
Mondrako jokalaria

"Indartsu irten gara, eta ondo jokatu dugu. Zorte apur bat izan dugu markagailuan aurretik ipintzen, baina gero merezimenduz irabazi dugu. Gainera, gol gehiago egiteko aukerak izan ditugu".

**EMAKUMEAK** > IGOERA FASEA

# Mondrako neskek Gipuzkoako kopako finala jokatuko dute

AÑORGA
**0-5**
MONDRA

Eibarren kontrako finala zapatuan jokatuko dute Bergarako Agorrosinen

**M.B.** > ARRASATE

Bigarren urtez jarraian Mondrako neskek Gipuzkoako kopako finala jokatuko dute. Igoera faseko lehen multzoko talde onena izatearren lortu dute arrasatearrek finalerako txartela. Hori horrela, zapatuan, Bergarako Agorrosinen jokatuko duten finalean Eibar izango dute aurkari –bigarren multzoko onenak–.

Finala irabaziko balute, Arabako eta Bizkaiko taldeekin hiruko txapelketa jokatuko lukete. Hiruko finaleko irabazleak nazional mailarako igoera lortuko luke. "Lehenengo finala irabazi behar dugu, eta ondoren hasiko gara igotzeko ditugun aukerak aztertzen", esan digu entrenatzaileak.

**AZKENA, ERRAZ**

Igoera faseko azken lehian 0-5 irabazi zion Mondrak Añorgari. Golegileak izan ziren, Ane Beraza, Ainhoa Alonso, Alaine Roa eta Maitane Roa (bi gol).

> OHOREZKO ERREGIONALA

### Partidu eskasa jokatu zuen Bergarak eta Real Unionek bost gol egin zizkion Agorrosinen (0-5)

Bergarak partidu txarra jokatu zuen zapatuan Real Unionen kontra Agorrosinen. Erlaxatuta irten ziren zelaira etxekoak, eta irundarrek menderatu zuten lehia hasieratik bukaerara. Mahonero-ek ez zuten gol aukerarik sortu, eta joko eskasa egin zuten. Zapatukoa ahaztu guran, puntuak batu gura dituzte Mondraren kontra Mojategin jokatuko duten derbian.

> PREFERENTEA

### Aretxabaletak eta Antzuolak galdu egin dituzte preferenteko azken jardunaldiko partiduak

Preferente mailan diharduten Aretxabaletak eta Antzuolak ez dute liga modu onean bukatu. Biek ala biek, galdu egin zituzten zapatuko norgehiagokak: Aretxabaletak Getarian (2-1), eta Antzuolak Estalan, Anaitasunaren kontra (0-3). Hori horrela, bi taldeek oso berdinduta bukatu dute liga. Antzuolak bederatzigarren tokian bukatu du 37 punturekin, eta UDAk hamargarren 35ekin.


Kilian Jornet, helmugara sartzen. MIKEL ZABALETA


Urtzi Berasaluze arrasatearra. JULEN IRIONDO


Indarrak hartzen. JULEN IRIONDO


Zaleak Urbian korrikalariak animatzen. JULEN IRIONDO

**MENDIA**> ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

# Kilian Kornetek marka guztiak hautsi zituen

## Hiru minututan jaitsi du berak ezarrita zuen errekorra; nesketan Emanuela Briziok irabazi zuen

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Orain dela bi urteko irabazlea nagusitu zen atzoko Zegama-Aizkorri mendi maratoian. Kilian Jornet kataluniarrak marka guztiak hautsi zituen, berak ezarritako errekorra gainditu; 3.59.33 marka 3.56.30era jaistea lortu zuen. Emakumezkoetan, berriz, Emanuela Briziok irabazi zuen ostera ere lasterketa. Debagoiendarrei dagokionez, Aritz Kortabarria arrasatearrak lortu zuen posturik onena. Seigarren geratu zen.

Aurtengo edizioan, nabarmentzekoa da egindako hotza. Elurrak eta izotzak, gainera, erortze asko eragin zituzten.

### Ibarrekoen denborak

| | |
|---|---|
| Aritz Kortabarria | 04.19.45. |
| Ekaitz San Vicente | 05.28.34. |
| Igor Guenetxea | 05.34.36. |
| Joxan Larrea | 05.41.07. |
| Josu Cascon | 05.54.33. |
| Urtzi Berasaluze | 06.28.06. |
| Gorka Iturbe | 06.28.25. |
| Jesus Odriozola | 06.35.35. |
| Andoni Urtaza | 06.37.27. |

ITURRIA: ZEGAMA-AIZKORRI

**TXIRRINDULARITZA** > 42. ARANTZAZUKO IGOERA

# Jon Ander Insausti (Caja Rural), Arantzazun azkarrena

**M.B.** > OÑATI

Jon Ander Insausti (Caja Rural) izan zen azkarrena zapatu arratsaldeko Arantzazuko igoeran. Natra Zahor enpresatik Arantzazuraino dauden 9,3 kilometro egiteko 23 minutu eta erdi behar izan zituen irabazleak. Lasterketa osoa bakarrik egin zuen. Txopekuan dagoeneko tropela atzean zuen eta apurka goraino igo zen. Horren harira, Txopekuako tarteko helmuga eta mendiko saria ere berarendako izan ziren.

Handik 33 segundora, Oier Iraolagoitia zumaiarra (Galdeano) heldu zen; Jon Ribero bergararra (Sumofic), berriz, hirugarren izan zen.

**45 TXIRRINDULARI**

Eguraldi kaskarrak aurreikuspenak bertan behera utzi zituen, eta 45 bat txirrindulari baino ez ziren iritsi Arantzazuraino. Gainerako debagoiendarren artean, Odei Orobengoa bergarararrak (Sumofic), Iker Eskisabel aretxabaletarrak (Lizarralde kirolak) eta Aitor Umerez oñatiarrak (Aloña Mendi) egin zuten markarik onena.




Luengo familia futbol partiduen ondoren egindako ekitaldian, Mojategiko zelaian. NAROA ODRIOZOLA

**FUTBOLA** > OMENALDIA LUENGOTARREI

# Kirol taldeen omenaldia Luengo familiari

Ointxe!, Mondra, Atletiko eta Pedrusko taldeak Luengotarrei omenaldia egin zioten

Mojategiko zelaian futbola, aurreskua eta luncha Luengo familiaren omenez

**NAROA ODRIOZOLA** > ARRASATE

Hamarkadak dira Luengo familiak Arrasateko klubetan esku hartzen duela. Hori dela-eta, herriko kirol taldeek bat egin eta omenaldia egin zieten zapatu goizean Mojategin. Omenaldia, baina, bereziki Carmen Gabarainendako izan zen, luengotarren amarendako. Besteak beste, Ointxe!, Mondra, Arrasate Atletiko taldea eta lehengo Pedrusko futbol taldea elkartu ziren Luengotarren omenaldia prestatzeko.

Futbolean jokatu zuten Ramonek, Jesus *Titi*-k, Imanolek, Rafak, Javik, Mikelek, Bakartxok, Amaiak eta Asierrek. Saskibaloi taldean ibili ziren, berriz, Bakartxo eta Amaia. Eta, atletismoan ibili ziren Maite,Izaskun eta Arantza. Gainera, euren aita Bernardino Luengo atletismoko epaile eta bere sasoian disko jaurtitzaile ere izan zen.

Eroski ondoko aparkalekuan zeuden auto kopuruak erakusten zuen omenaldian koadrila polita batu zela. Lehendabizi bi futbol partidu egon ziren. Batetik, Luengotarrek osatutako taldeak Pedrusko historikoaren kontra jokatu zuen, nostalgikoendako partidua. Bestetik, 12:00etan Mondrako emakumezko beteranoek osatutako taldeek jokatu zuten.

Futbol partiduen ostean, Luengo familia bildu zen futbol zelaian eta dantzariek aurreskua dantzatu zioten. Carmen Gabaraini, hamahiru seme-alaberen ama eta 1981ean hil zen Bernardino Luengoren emazteari, loreak eta plaka bat eman zioten. Ekitaldiaren ostean, luncha egon zen bertan geunden guztiontzat.


Arrasate Atletikoko ordezkariak Carmen Gabarainekin. NAROA ODRIOZOLA


Josune Elkoro beltzez, erasoan dabilen jokalariari presio egiten. NAROA ODRIOZOLA


Pedruskoko jokalari ohiak, eta luengotarrak, lagunartekoan. NAROA ODRIOZOLA


Estitxu Ramos baloiarekin kontrarioa atzean utzi nahian. NAROA ODRIOZOLA

**Asier Zubillaga** > Amisco-ko Espainiako ligako arduraduna eta EHUko irakaslea

# "Jokalarien mugimenduak aztertu eta datu objektiboak ateratzen ditugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Asier Zubillaga arrasatearra EHUko irakaslea da Gasteizen. Lan horretan dabil azken 16 urteetan; orain, baina, irakasle izateaz gain Amisco-ko Espainiako ligako arduraduna ere bada Zubillaga. Arrasateko Danok-Bat elkartearen 75. urteurren ospakizunetan azaldu zuen zer den Amisco.**

**Amisco futbola aztertzeko sistema bat dela esan daiteke?**

Futbol partiduak aztertzeko erabiltzen dugun sistema bat da. Kamerak jartzen ditugu futbol zelaian, eta partidu guztia grabatzen dugu. Gero, prozesu baten ondoren, aukera daukagu grabatutakoarekin analisi sakonak egiteko. Jokalarien mugimendu guztiak kontrolatzen ditugu, eta baita baloiarekin egiten dituzten mugimenduak ere. Datu horiekin informeak ateratzen ditugu.

**Gaur egun zenbat taldek erabiltzen dute sistema hori?**

Espainiako ligari dagokionez, zazpi talde ditugu; eta bigarren mailan Realak ere erabiltzen du sistema hori.

Horrez gain, beste 19 herrialdetan zabaldu dugu sistema: Ingalaterran, Frantzian, Alemanian, Portugalen, Mexikon… Ingalaterran, adibidez, ligako talde erdiek erabiltzen dute, eta baita Frantzian ere. Portugalen, aldiz, Portok bakarrik erabiltzen du eta Italian Milango Interrek.

**Funtzionamenduari dagokionez, kamerak non jartzen dituzue?**

Kamera sistema finkoa da, denboraldi guztirako jarrita geratzen dira. Jarri aurretik estadioa aztertzen dugu: altuerak, distantziak… Horren arabera jartzen ditugu kamerak. Leku egokienak, normalean, leku garaiak izaten dira. Perspektiba garbia izaten dute; izan ere, aukera ematen dute jendearen buruak ez grabatzeko.

**Zelan sortu zen sistema hori eta zein helbururekin?**

Helburua da taldeen eta jokalarien errendimendua handitzea. Futbolean, gaur egun oraindik, erabaki asko hartzen dira era oso subjektiboan. Sistema horrek, eta baita antzerakoek ere, ahalbideratzen dute datu objektiboak izatea. Jokalariak aztertzen dira modu sakonean, eta erabakiak hartzen dira era objektiboan.

Hortaz, alde batera uzten dira entrenatzaile edo pertsona jakin batek izan dezakeen iritzia. Erabakia hartzerakoan datuak behar dituzu, erabakia hartzeko oinarriak. Uste dugu futbolean mugitzen den diru guztia ikusita ez dela zuzena erabakiak hain modu subjektiboan hartzea.

Bestalde, errendimenduari dagokionez, partiduak aztertzeko modu berri eta sakonagoa da. Entrenatzaileak partiduan zehar jasotzen duen informazioa hor geratzen da; baina sistema horrekin hori guztia kontrastatzeko aukera izaten dute entrenatzaileek. Eurek izan duten inpresioa datuekin bat datorren ikusteko aukera izaten dute.



Asier Zubillaga, Arrasateko Danok-Bat elkartean. A.E.

SISTEMA

**"Kamera finkoak izaten dira eta denboraldi osorako jartzen ditugu estadioan"**

FUTBOLA

**"Mugitzen den dirua ikusita ez da zuzena erabakiak hain subjektiboak izatea"**

EPAILEAREN ERABAKIAK

**"Sistema horrek ez du denbora errealean lan egiten; ez du balio epailea zuzentzeko"**

**Espainiako ligan Reala hasi zen sistema hori erabiltzen. Hala da?**

Sistema Frantzian sortu zen, baina garai baten sistema industriala zen, ez zen komertzializatzen. Frantziako taldeekin hasi ziren modu esperimentalean erabiltzen. Publizitate pixka bat egin zuten eta Reala interesatu egin zen.

Enpresaren oinarria Nizan dago, eta hara deitu zuen Realak. Espainiako ligan sistema hori jarri zuten lehenengoak izan ziren Realekoak; hala, Hondarribian jarri zuen Amiscok Espainiako ligako egoitza.

**Hortaz, esan daiteke kirolean ere teknologiak lagundu egiten duela?**

Bai; bizitzako beste arlo batzuetan moduan, teknologiak lagundu egin dezake. Baina, erabilpenaren arabera, onerako edo txarrerako izan daiteke erabilpen hori. Beste leku guztietan gertatzen den moduan, teknologiak lagungarria izan behar du.

**Sistema hori erabili duten taldeek zer diote? Hobetu egin dute euren jokoa?**

Jokoa esatea gehiegi da; izan ere jokalarien eskuetan zaude. Gainera, nik ez dut uste talde guztiek erabilpen guztiz egokia egiten dutenik. Baina talde batzuek esaten digute erabilgarria izan dutela gauza batzuk sartzeko edo beste batzuk kentzeko.

Horretaz aparte, taldeak hobetzen duen edo ez beste gauza bat da. Aurkariak ere jokatzen du, eta beste faktore batzuk ere badaude. Hala ere, sistema horrekin hobetu egin daitekeela uste dut. Eta egia dena da behin kontratua bukatuta talde guztiek luzatzen dutela.

**Gainera, sistema horrek balioko du titular esanguratsuak ateratzeko: jokalari batek hainbat kilometro egin ditu korrika, adibidez.**

Hori kazetarien kontua da! Ezin duzu jarri titular bat esaten hark korrika horrenbeste kilometro egin duela; hori testuingurutik kanpo geratzen da. Dena neurtu behar da bere neurrian. Titularrak ateratzea ez da egokiena, baina egia da aukera ematen duela; hala ere, ez da helburua.

Guk beti zaindu izan dugu gai hori. Normalean, talderen batek filtrazioren bat egin duenean ez da gure kontua izan; taldeek euren era interesatuan eman dute informazioa. Baina helburua ez da hori, helburua entrenatzaileei laguntzea da.

**Futbolaz berba egiten gabiltza, baina beste kirolen baten ere erabiltzen da sistema hori?**

Errugbian egin ditugu proba batzuk. Ingalaterrarako eta Frantziako federazioekin egin dugu lan, batez ere sei nazioetako txapelketan erabiltzeko.

Beste kirol batzuetan saiatu egin gara erabiltzen, saskibaloian adibidez, baina oraindik garatu barik dagoen sistema da.

**Futbolean epaileez berba asko egiten da. Badago sistemarik zuzenean epaileen erabakiak aztertu eta aldatzeko balio duena?**

Gure sistemak ez du denbora errealean lan egiten. Partidua grabatzen dugu eta gero produkzio zentro batean ateratzen ditugu datuak. Denbora bat behar dugu datuak ateratzeko.

Nik uste dut futbolean lehenengo epaileei erakutsi behar zaiela epaile onak izaten. Gero, jendeari erakutsi behar zaio behin epaile onak izanda, jokalari batek akats bat egin dezakeen moduan, epaile batek ere akats bat egin dezakeela.

HEZIKETA > IPUINAK

# Ipuinek entretenitu, hezi eta loturak sendotzen dituzte

Garrantzitsua da aukeratzerakoan umearen gustuak kontuan hartzea, eta ipuinaren irakurketa entretenigarri egitea

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE

Bakarrik edo lagunduta ipuinak irakurtzeak onura handiak ditu umeendako. Irakurzaletasuna bultzatzen du, kreatibitatea eta irudimena sustatzen du, hiztegia aberasten laguntzen du eta ulermen gaitasuna estimulatzen du. *Consumer* aldizkariak landu du gaia asteon.



Haurra, ipuina irakurtzen. MALGLAM

**IPUINA AUKERATZEKO**

Zein ipuin hautatu garrantzitsua da. Hainbat irizpide jarraitu behar dira aukeraketa egokia egiteko. Umearen adina, ulermen gaitasuna eta interesak kontuan hartzea ezinbestekotzat jotzen dira.

Ipuina irakurtzerakoan gurasoaren inplikazio maila ere garrantzitsua da. Umearen interesa zirikatzeko, intonazioa eta erritmoa zaindu egin behar dira. Imintzioak eta keinuak egiteak ere nabarmen aberastuko du narrazioa. Ez dugu ahaztu behar ipuinak garrantzitsuak direla balioen transmisioan.

**IPUINAK ASMATZERA GONBIDATU**

Adin batetik aurrera, oso hezitzailea da baita ere ipuinak idaztea edo asmatzea. Umeei asko gustatzen zaie, eta *Bazen behin baten* esalditik abiatuta umeek berehala egiten dute salto fantasiazko mundu batera. Etxean ipuinak eskuragarri egotea gomendatzen dute.

HEZKUNTZA > 'GOLDEN 5' PROIEKTUA

## Jarrera positibistak ikasleen emaitzak hobetzeko

L.Z. > ARRASATE

Psikologian doktore Maria Jose Lerak *Golden5* proiektuaren balorazio positiboa egin du. Irakasleei zuzendutako proiektua da, aurreko urtean Comenius sari europarra lortu duena.

Europako bost herrialdetan ari dira programa hori lantzen: Espainian, Polonian, Belgikan, Norvegian eta Italian. Proposatzen du, besteak beste, ikasleen aspektu positiboak nabarmentzea. "Gure lorpenak jendaurrean nabarmentzen dituztenean, gure motibazio maila handitu egiten da", esan du Lerak *Consumer* aldizkarian.



Bi neskatila eskolarako bidean. PINK SHERBERT PHOTOGRAPHY

**ALDE POSITIBOAK NABARMENDUZ**

Adituek uste dute eskola orokorrean ez dela erakargarria ikasleendako. Euren esanetan, beste gauza batzuen artean horregatik izaten dira gaur egun ugaritzen ari diren jarrera eta biolentzia arazoak. Errendimendu txikiak, motibaziorik eza, jazarpen egoerak... Leraren ustez, gurasoek ere bat egin behar dute ahalegin horretan. "Familiek ere *Golden* begiradarekin lan egin behar dute, guztiak gara-eta talde batean *distira* egiteko gai", esan du. "Familia asko oso ezkorrak dira eskola-porrota kasuekin eta horrek ez dio ikasleari inongo mesederik egiten. Ez ditzagun alde txarrak edo kexak nabarmendu. Egiteko dagoen bidea azpimarratu behar dugu, etortzeko dauden lorpenak".

OGASUNA > ZERGAK

## Umeen izaera ezberdinak errenta aitorpenean

L.Z. > ARRASATE

Errenta aitorpenaren kanpainan gaude bete-betean. Horren harira, seme-alabekin lotuta kontuan hartu beharreko hainbat aspektu juridiko azaldu ditu Onintze Guridik. "Seme-alaba guztiak gurasoetako bati bakarrik egotziko zaizkio", esan du Guridik, "eta akordiorik egon ezean epailearen erabakiz egingo da hori".

Kenkariei buruz azaldu du zergadunarekin bizi den ondorengo bakoitzagatik –salbuespen batzuk tarteko– kenkaria aplikatuko dela errenta aitorpenean. Gainera, 6 urtetik beherako seme-alaba bakoitzagatik kenkari osagarria egingo da.

Eta epailearen erabakiz seme-alaben mantenurako pentsioak ordaintzen dituzten gurasoek kopuru horiengatik kenkaria egiteko eskubidea izango dutela ere gogoratu du Guridik.

HEZIKETA > IPUINAK

## Laguntza profesionala noiz eskatu behar da?

L.Z. > ARRASATE

"Laguntza profesionala eskatu behar da gauzak ondo ez doazenean". Oñatiko Prebentzio teknikari Ainhoa Moiuaren hitzak dira, eta Dani Arrizalaren *Ilargipean* saioan entzun dizkiogu, Euskadi Irratian.

"Triste egotea, lagunik ez izatea, eguneroko harremanetan arazoak izatea... gero eta gaztetxo gehiagok dituzte antzerako arazoak. Gurasoek jakin behar dute irakasleengana eta udaletako gizarte laguntzaileengana jo dezaketela orientazio bila", esan zuen.

**DENON IRITZIA JASO**

"Noiz hasi beharko genuke kezkatzen? Gurasoak, pediatra, amama, irakaslea... denon iritzia jasotzea oso garrantzitsua da. Denok konturatzen gareneán zerbait ez doala ondo, dudaren aurrean galdetu".



Neska gaztea liburua irakurtzen. ALLSPICE1

> DIRULAGUNTZAK

### 3 urtetik beherako haurrak eskolatzeko dirulaguntza deialdia egin du Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2009-2010 ikasturtean lehen zikloko Haur Hezkuntzan, ikastetxeetan eta haur eskoletan izena emanda dauden haurren familientzako dirulaguntza deialdia argitaratu du.

Eskaerak maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira. Gehienez, hilean, 90 euro jaso ahalko dira. Arautegiak familiek bete beharreko errenta-mugak finkatzen ditu.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> PETTI GURE LEKUN**
Berako bakarlaria gordin, sakon eta intentsu egon zen Arrasaten > 30



**> GANBARA ABESBATZA**
Esteban Urtzelaik azkenekoz zuzendu zuen Ganbara abesbatza > 31



**> GOVERNORS 3 ARETOAN**
Ikusleak gehiago entzuteko gogoz geratu ziren Arrasaten > 31

**ANTZERKIA** > MOZART GOGOAN

# Mozarten opera ezagunenak, familia guztiarentzat gozagai

**IKUSKIZUNA**
Opera Divertimento konpainiak domekan egingo du saioa Aretxabaletan

**MOZART PROTAGONISTA**
Konpositore austriarrarren operak izango dira ardatza

**TXOMIN MADINA** > ARETXABALETA
Wolfgang Amadeus Mozart konpositore austriarrak estilo askotariko 600 pieza baino gehiago idatzi zituen bere bizitzan zehar, horietako asko oraindik ere ezagunak diren operak.

Bada, opera horiek izango dira protagonista datorren domekan Aretxabaletako Arkupe kultura etxean agertokira eramango duten Mozart gogoan ikuskizunean. 19:00etan hasiko da antzezlana.

**FAMILIENDAKO IKUSKIZUNA**
Opera Divertimento konpainiako kide den Andoni Barañanoren arabera, bost urtetik gorako neska-mutikoentzat eta euren familientzat pentsatutako antzezlana da Aretxabaletara ekarriko dutena. Ordubete inguru iraungo du eta Mozartek idatzitako 22 operen artean, esanguratsuenak diren piezen laburpen bat izango da.

Hasteko, Mozarten lehenengo operetako ariak eta duoak kantatuko dituzte, *La Finta giardiniera* eta *Bastian eta Bastiana*, hain zuzen ere. Gero etorriko dira *Idomeneo*, *Haremetik bahitua*, *Cosi fan tutte*, *Le Nozze di Figaro*, *Don Giovani* piezetako zatiak eta bukatzeko, *Txirula magikoa* ezaguna. "Umeendako ikuskizuna dela kontutan hartuta, opera bakoitzeko zatirik alaienak eta dibertigarrienak hartu ditugu, emanaldia erakargarria egiteko asmoarekin" azaldu du Barañananok. Ikuskizunak baina, helburu didaktikoa ere badu eta hala, operaren inguruko azalpenak ere emango zaizkie ikusleei.



Mozarten opera ezagunenetako pasarteak antzeztuko dituzte domekan Aretxabaletako Arkupen.. OPERA DIVERTIMENTO

**LAU AGERTOKIAN**
Baina zergatik aukeratu dituzte Mozarten operak? Barañanok argi dauka: "Austriarraren operak oso aproposak dira umeendako; erraz asimilatzeko modukoak dira, egitura musikal oso logikoa dute-eta".

*Mozart gogoan* antzezlanean bi hizkuntza nahasten dira: antzeztutako zatiak euskaraz dira, abestutakoak berriz, gazteleraz. Barañanok berak azaldu duenez, operak jatorriz latinez, italieraz eta alemanez daude, baina gertukoagoak egiteko, gaztelerara itzultzea erabakiz zuten.

**OPERA HERRIRATZEN**
Lau pertsona arituko dira agertokian. Iraide Urkiaga izango da aktorea, nolabait ere istorioaren ildoa eramango duena. Abeslari lanetan Andoni Barañano bera eta Ana Salomon ibiliko dira: Barañano tenore gisa, eta Salomon soprano moduan. Bukatzeko, Mario Lerena arduratuko da pianoa jotzeaz.

Barañanok ez du zalantzarik egiten horrelako ekimenen beharraren inguruan. "Gurasoak gero eta kontzienteagoak dira hezkuntza musikalaren garrantziaz, besteak beste adimena garatzen laguntzen duelako" azaltzen du.Baina horrelako antzezlanarekin beste helburu bat ere badute: opera herriratzea. "Hasieran, opera herritik oso gertu zegoen ikuskizuna zen, konpainia ibiltariak ziren opera egiten zutenak. Gero, hainbat arrazoi medio, ikuskizun elitista bihurtu zen. Bada gure asmoa da hasierako kutsu herrikoi horretara bueltatzea" gaineratze du Barañanok.

Domekan beraz, munduko antzoki eta opera onenetan entzundako doinuak ezagutu eta eurekin gozatzeko aukera aparta izango dute Aretxabaletako Arkupera gerturatuko direnek.

OPERA DIVERTIMENTO

## Ikuskizun handiak formatu txikian

Duela hamar urte sortu zuten Ana Salomonek eta Andoni Barañanok Opera Divertimento eta hainbat izan dira formatu txikirako egokitu dituzten operak. ''Formatu txikiak ahalbideratzen dizu opera bat normalean muntatzea ezinezkoa izango zen lekuetara eramatea, esaterako, kultura etxeetara'' dio Barañanok.

Kutxen fundazioekin lan asko egiten dute, batez ere eskoletan, baina tarteka helduen aurrean ere aritzen dira. Kasu ere ikusleek oso harrera ona egin omen diete, operari buruzko xehetasunak interes handiarekin jarraituaz. Formatu txikia utzi barik jaialdietarako tamaina ertaineko ikuskizunak ere landu gura dituzte etorkizunean.

**NON:** Bergarako Udal Pilotalekuan.
**EGUNA:** Zapatua,maiatzak 15.
**ZENBAT JENDE:** 300 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.


Kemen Bedialauneta Bergarako Musika Eskolako orkestra sinfonikoa zuzentzen..
JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARAKO MUSIKA ESKOLA** > XXII. UDABERRIKO JAI KONTZERTUA

# Ikasitakoak ederki erakutsiz

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Urte guztian ikasitakoa, urte guztian landu eta barneratutakoa herriari erakusteko aukera aparta izaten da Bergarako Musika Eskolako ikasleentzat udaberriko jai kontzertua. Zapatuan egin zuten dagoeneko klasiko bihurtu den kontzertu honen 22. edizioa, eta asko izan ziren Bergarako Udal Pilotalekura hurbildu ziren senide, lagun eta orokorrean, musikazaleak.

Kontzertuan zehar maila guztietako ikasleek hartu zuten parte, eta entzundako doinuen artean, aniztasuna izan zen nagusi: pieza herrikoiak zein klasikoak eskaini zituzten.

**TXIKIENEN XALOTASUNA**

Kantu finlandiar herrikoi bat oinarri hartuta lau hizkuntzatan ongietorria eman ostean, Suzuki taldeko biolin-jotzaile txikiak izan ziren kontzertua ireki zutenak. Harrigarria, hunkigarria eta era berean txalotzekoa izan zen eskainitako emanaldia: gazteenak hiru urte eskas zituen arren, denak ere fin asko ibili ziren.

Akordeoi orkestrak hartu zien erreleboa eta bi pieza eskaini zituzten: *Chanson triste* eta *Xalbadorren heriotzean*. Kamiseta gorriak jantzita hasiberrien abesbatzaren irten zen gero, eta hauek ere gustura utzi zituzten ikusleak: euren kantu eta dantzekin, dantzan eta kantuan hasteko gogoa pizten zitzaion edonori!

Animoak berriro ere baretuz, txistu taldeak *Segurako alborada* eta *Xamargarria* zortzikoa jo zituen, eta ondoren, berriz ere txikienak aritu ziren kantan; *Kalaberak* izeneko abesti dibertigarria hain zuzen ere. Ikusleen artean abestu zuten gainera.

Musika Eskolako orkestra sinfonikoak eta haurren abesbatzak bina pieza eskaini zituzten gero, eta trikitxa taldeak, beste bi: *Polca de Ors* eta *Errota zaharra*. Gazte bandak pieza bakarra jo zuen, baina ez nolanahiko pieza: *Canta Napoli* izan zen aukeratutako doinua, eta ikusleek, begiak itxiz gero, Italiara bidaiatu ahal izan zuten.

**DENAK BATERA**

Horrelako kontzertu handietan ohikoa den moduan, Musika Eskolako talde ezberdinetako kide, zuzendari, irakasle eta ikasleek batera eman zioten amaiera jaiari: Lennonen *Imagine* kantu ezagunaren euskarazko bertsioa jo eta abestu zuten, baita Musika Eskolako martxa ere. Kontzertu borobilari amaiera borobila, zalantza barik.

**KONTZERTUA** > PETTI

# Berako piztia gordin, sakon eta intentsu

**NON:** Arrasateko Gure Leku taberna.
**EGUNA:** Zapatua, maiatzak 15.
**ZENBAT JENDE:** 50 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta hogei minutu.

**T.M./I.B.** > ARRASATE

Ausarta izan behar du artista batek bere gitarraren laguntza soilarekin ia ordu eta erdiko kontzertua emateko, eta horixe egin zuen zapatuan Petti beratarrak Arrasateko Gure Leku tabernan.

Ikusleek gainera, ondo erantzun zuten eta 50 pertsona inguru elkartu ziren kontzertuan, rockerrak edo bakarlari intimisten jarraitzaileak; Arrasatekoak bertakoak eta kanpokoak.

**BILUZIK**

Kontzertua hasi eta lehen 45 minutuetan ez zen etenik egon. Bata bestearen atzetik lotu zituen Pettik kantak, ikusleei begiratu gabe, beretako kantuan balego bezala, abestiak sinesgarriago eginaz; hitz baten, biluzik. Ohikoa duen folk ukitua eman zien abestiei, beti ere bere kolore bereziarekin, beste inork ematen ez dion eran. Baina folkarekin bakarrik ez, bluesarekin ere jolastu zuen beratarrak.

Gordin, sakon eta intentsu aritu zen, tarteka barruko piztia libre utzi eta sekulako oihuak boteaz. Abestiak bizi dituen seinale da baita ere pieza bakoitzarekin egiten duen antzezpen partikularra, kontatu gura denaren pertsonifikazioa.

Ezagun egin duten *Xorieri mintzo zen, Txomin Iantziri kantua* edo *Argia heldu da* bezalako abestiak jo zituen , baina bertsiorik ere entzun zen, Jimi Hendrixen *Hey Joe!*-ren bertsio euskeraratua edo Ruper Ordorikaren *Ene begiek* kasu.

Asteburuan gainera, Pettiz bi aldiz gozatzeko aukera izan dugu ibarrean, atzo Oñatiko Guria tabernan ere jo zuen-eta. Beratarrak zapore ona uzten duen seinale, duda barik.


Bere gitarraren laguntza soilarekin aritu zen Petti Arrasaten.
JOSETXO ARANTZABAL

**Esteban Urzelai**> Ganbarako zuzendari ohia

# "Nere lanbidea abesbatzak zuzentzea bada, Ganbarari esker da"

**TXOMIN MADINA** >OÑATI

**30 urte ditu Esteban Urzelaik eta horietatik erdia baino gehiago eman ditu Ganbara abesbatzari lotuta, gehienak zuzendari moduan. Atzo zuzendu zuen azken aldiz Oñatiko abesbatza, eta orain arteko ibilbideaz eta etorkizunaz hitzegiteko aukera izan dugu berarekin.**

**Ganbara uztea erabaki duzu. Zer dela eta??**

Bizitzak ematen dituen bueltenen ondorioa da. Ni Donostian bizi naiz orain, eta gero eta gogorragoa egiten zitzaidan entseatzeko astebururo Oñatira bueltaka ibiltzea. Neke kontua da dena.

**1994an Ganbara sortu zenean, hantxe zeunden zu . Nola gogoratzen dituzu hasierak ?**

Kakaume koadrila bat ginen orduan; nik neuk 14 urte inguru izango nituen, eta zaharrenak, 20 asko jota. Ia ez genekien ezer abesbatzen inguruan, baina gero eta hobeto aritzeko gogoarekin, gauza berriak ezagutzearekin, Ganbara egun dagoen tokira eraman genuen.

**Abesbatza sortu eta gutxira, zuzendari hasi zinen eta horretan ibili zara orain arte.**

Orduko zuzendaria, Gorka Cueva, kanpora joan zen ikastera, eta ni musika munduan sartuta nengoenez, neri eskatu zidan behin -behineko zuzendari izatea. 17 urte izango nituen orduan, eta orain arte. Gaur egun nere lanbidea abesbatzako zuzendari izatea bada, Ganbaran hasi nintzelako izan da.

**Ganbaran bizitako guztitik, zein momentu aukeratuko zenuke?**

Momentu onak eta ez hain onak bizi izan ditugu, baina une bat aukeratzekotan duela lau urte Esloveniara egindako bidaia aukeratuko nuke: gure lehenengo nazioarteko txapelketa, finalera heltzea, herrialdea bera...Uste dut denok ere oroitzapen oso bereziak ditugula.

**Ganbara utziko duzu, baina ez musika mundua.**

Donostiako Orfeoian lan egiten dut hainbat talde zuzentzen, umeak eta helduak, eta horretan ariko naiz buru-belarri: kontzertuak, proiektuak...



Esteban Urzelaik atzo zuzendu zuen azken aldiz Ganbara abesbatza. GOIENKARIA

**"Hasieran ia ez genekien ezer abesbatzez, baina gogoarekin egun gauden tokira heldu ginen"**

**"Bizitakoen artean, Esloveniarako bidaia izan da bereziena"**

UDABERRIKO MUSIKALDIA

## Ganbararen eskutik, Frantziako eliz musika gozagarri

Atzo egin zen Oñatiko Santa Ana antzokian aurtengo udaberriko Musikaldiaren bigarren ekitaldia. Kontzertu honetan, bi formazio aritu ziren elkarlanean: batetik, ahotsa jartzen, Ganbara abesbatza; eta bestetik, musika arloan, Cum Laude ganbera taldea. XVII. mende amaierako Frantziako eliz musikan oinarritutako errepertorioa aurkeztu zuten, bi konpositore ardatz hartuta: Charpentier eta Campra.

Hala, emanaldiaren lehen hogei minutuetan, Marc-Antoine Charpentierren Ama Birjinari eskainitako lau antifona abestu zituzten oñatiarrek. Kontzertuan abestutako bigarren obra luzeagoa izan zen, luzeagoa eta era berean baita konplexuagoa ere. André Campra frantziarraren *Requiem* meza. Camprak Notre Dame katedraleko musika zuzendaria zela konposatu zuen lan hau, berez hil berri zen Parisko artzapezpikuaren omenez. Baina XVIII. mendearen amaieran ohitura bihurtu zen Frantzia Hegoaldean requiem honen zatiak hileta elizkizunetarako erabiltzea.

Ganbara abesbatzakoek ederki asko interpretatu zituzten bi maisuen lanak, taldearen sonoritatea pieza bakoitzaren beharretara bikain egokituz.

**BERTSOLARITZA** > GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETA

# Etorkizuneko bertsolariak fin ibili ziren Arrasaten

Idatzizko lanak egin behar izan zituzten partehartzaileek; zenbaitek, bat-batekoak ere bai

**T.M.** > ARRASATE

Egubakoitz arratsaldean jokatu zen Arrasateko Gaztelupe Ikastolan Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketako hirugarren kanporaketa.

Kanporaketari hasiera emateko, idatzizko lanak egin zituzten lehenengo Almen, Gaztelupe, Gazteluondo, Oñatiko Txantxiku eta Azpeitiko Ikasberri ikastolako360 neska-mutikok .

**BAT-BATEAN ERE BAI**

Gazteenek taldeka eta nagusiagoek bakarka, bat-bateko lanak ere egin zituzten zenbaitek egubakoitzean. Horien artean egon zen bakarka aritu zen Jon Irizar oñatiarra.

Laugarren eta azken kanporaketa datorren astean jokatuko da Ordizian, eta horren ostean jakingo da maiatzaren 28ko finalera zeintzuk pasako diren.



Bat-batekoan ere aritu ziren egubakoitzeko saioan. IRATI AGIRREAZALDEGI



GOIENKARIA

## Hasiera indartsua izan du Andaluziako kultura asteak

Arrasateko Al Andalus elkarteak asteburu honetan eman dio hasiera Andaluziako kultura asteari. Festa giroko hasiera umoretsua gainera, batetik, Musakolako jaiekin batera izan delako, eta bestetik elkarteko hainbat kidek osatzen duten Juancohones taldearen txirigota satirikoekin abiarazi zelako kultura astea zapatuan.

Atzo, bestalde, elkarteko koru errozieroak kontzertua eskaini zuen 13:00etan eta horren ostean, elkarteko 82 gizon elkartu ziren gizonezkoendako bakarrik izan zen bazkarian.

**MUSIKA** > GOVERNORS ETA UK BILL TALDEEN KONTZERTUAK

# Gehiago entzuteko gogoa, 3 aretoan

**NON:** Arrasateko 3 aretoan.
**EGUNA:** Egubakoitza, maiatzak 14.
**ZENBAT JENDE:** 60 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.


Governors talde arrasatearrak *Frenetikodrome* izeneko diskoa aurkeztu zuen 3 aretoan. JOSETXO ARANTZABAL

**E. ZUMALDE - M.BITERI** > ARRASATE

Gustura egon ziren egubakoitz gauean Arrasateko 3 aretoan izan zirenak. UK Bill eta Governors taldeek eskainitako kontzertuetan jende gehiegi egon ez bazen ere, horrek musikari eta entzuleen arteko giro "berezia" eragin zuen; eta abesti gehiago entzuteko gogoz geratu zen bat baino gehiago.

Añorgako taldea izan zen agertokira igo zen lehena. Joan den urtean kaleratutako *Paradisu sekretua* izeneko laneko kantuak jo zituzten bereziki, baina baita bere lehenengo diskoko hainbat ere. Ordubete inguru iraun zuen emanaldian, ukitu melodikoa zuten rocka eta heavya izan ziren nagusi taula gainean.

**'FRENETIKODROME'**

Jarraian, Arrasateko boskotea igo zen agertokira. Juan Sangreren taldeak *Frenetikodrome* izeneko bigarren diskoa aurkezteko Arrasaten eskainitako lehenengo kontzertua zen egubakoitzekoa. Kantu berriak ezagutaraztaz gain, dena dela, *Itxaron beharra ez da itxaropena* laneko hiruzpalau abesti ere jo zituzten arrasatearrek. Kontzertua ikusgarria izan zen; suak bere tokia izan zuen. Juan abeslaria, gainera, publiko artean abesteaz gain tabernako barrara ere igo zen. Hori, dena dela, ez zen musikariek zaleekin izan zuten kontaktu bakarra; bukaera partean, Pako gitarra jotzailea ere publiko artean murgildu zen-eta, giro berezia sortuz. Kontzertua Atortxuko abestiarekin amaitu zuten.

**MUNDUMIRA**

## Otxoa de Olza gogoan izango dute Antzuolan

Mendizale nafarraren gaineko filma ikusi ahalko da maiatzaren 28an

**M.B.** > ANTZUOLA

Mundumiraren harira, Iñaki Otxoa de Olza mendizale nafarraren gaineko dokumentala ikusi ahalko da datorren astean, Antzuolan. *Iñakiren ahotsa* izeneko filma maiatzaren 28an, egubakoitza, botako dute, 19:00etan, Torresoroan.

**BERE AHOTIK**

Sei ataletan banatuta dago, eta bakoitzean mendizalearen ibilbidearen eta bizitzaren berri ematen da, Otxoa de Olza beraren ahotik (Beheko kanpalekua, 1, 2, 3 eta 4 kanpalekuak eta gailurra dira sei atalak). Haurra zeneko oroitzapenaz, aita eta anaiekin mendira egindako irteeraz, mendebaldeko gizarte kontsumistaz, ekialdeko gizarteaz, edo heriotzaz ere jarduten du mendizaleak filmean.

**KIROLA** > KIROLA AUKERATZEN

# Kirol bakarra ala denetik?


Multikirola da, umetan, kirolerako aukerarik egokiena. GOIENKARIA

**XABIN ARRIOLA**

Txiki-txikitatik bultzatu nahi izaten ditugu gure haurrak kirol aztura osasuntsuen bila eta aisialdia betetzeko ekintzetara.

Eskolako jarduna bukatzen dutenean kirol munduan aritzea aukera ezin hobea da.

Halaber, jakin badakigu elikaduran egokiena denetik jatea dela. Ba, kirolean berdin. Kirolean ere modalitate desberdinetan aritzea da egokiena.

Orain gutxi, eskoletako Soin Hezkuntzako orduak murriztu dituzte maila askotan. Horren harira, kirol arloan profesionalak garenok oso ondo dakigu jarduera fisikoa praktikatzea zein garrantzitsua den haurraren garapen psikomotorrerako ez ezik garapen afektibo, sozial eta kognitiborako ere. Eskerrak, bederen, eskolaz kanpo aukera zabala dagoen.

Aukera hauek ditugu, besteak beste: eskola kirola eta kirol elkarteak.

**AUKERARIK ONENA**

Haurrentzat aukerarik onena?

-Multikirola edo eskola kirola: hainbat kirol praktikatzen da, denetik probatzea du helburu. Multikirolaren filosofiak haur guztien parte-hartzea eta aukeren berdintasuna bultzatzen du eta hori jardueretan ikusten da. Haurraren garapena eta osasuna lortu nahi bada eta kirolaz gozatzea, garaipenari loturiko presiorik gabe, multikirolak ematen du hori.

-Kirol elkarteak edo espezializazio goiztiarra: kirol bakarrean aritzeari esaten zaio eta kirol elkarteetan egiten da. Kirolean errendimendu onena lortu nahi bada, txikitatik kirola praktikatzea da onena. Baina, sarri, guraso bete ez dituzten ametsak bete ahal izateko aukera bilakatzen da, eta kontuz; izan ere, denbora aurrera joan ahala punta-puntan aritzea gero eta zailagoa da, porrotak iristen hasten dira eta haurrak jasaten duen presioa handia da. Zenbat goi mailako kirolari ezagutzen dugu?

**Umeak denetik proba dezala eta kirolari izatera heltzen bada, hel bitez**

**ZEIN ADINETAN BATA EDO BESTEA?**

Haurra txikia denean (6-12 urte) multikirola da egokiena bere garapen biologiko eta psikologikoa kontuan hartuta. 12-14 urtetatik aurrera, aurretik probatu dituen kirolen artean (edo beste batzuk) aukeratzeko gaitasuna izango du eta ordurako oinarrizko trebetasunak barneratuta. Kirol bakarrean murgiltzeko unea iritsi zaio.

Nire aukera seme-alabei begira, kirolzale eta guraso naizen aldetik, kirolaren aldekoa da; denetik proba dezatela eta kirolari izatera heltzen badira, hel bitez. Baina nik multikirolera animatuko ditut.

**KIROLAK HAURRARI EMATEN DIONA**

Pierre de Couvertinek zioen moduan, "kirola giza mundu txiki bat da". Zer ematen dio kirolak haurrari?:
- Haurraren garapen biologikoari laguntzen dio mugimendufuntzioak eta fisiologikoak indartuz.
- Koordinazio maila eta gaitasun fisikoetan trebatzen da, bere motrizitatean aberastasuna lortuz.
- Bizitza aztura osasuntsuetarantz hurbiltzen du, egun gero eta hedatuago dagoen mugimendu gutxiko bizitzari aurre eginez.
- Lagunak egiten ditu, talde sena garatu... Labur esanda, sozializatu egiten da eta trebetasun sozialetan konpetentziak lortzen ditu.
- Autonomia, ardura eta autoexijentzia gaitasunak lantzen ditu; hobeto ulertzen du gauzak saiatuz lortzen direla.
- Haurra lehiakortasunean hezten du; arrakasta eta porrotak ezagutzen ditu, eta poliki-poliki horiek kudeatzen ikasten du, irabazten eta galtzen.

**Atal honetan...**

Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

GURE TALDEAK

## The Wet Band



Ezkerretik eskuinera, Aitor, Iñigo, Ainara, Kere eta Endika. THE WET BAND

# "1960-1970eko ur jarioaren korronteetako bat gara"

The Wet Band mutrikuarrek diskoa grabatu dute, Danbaka musika lehiaketako sari nagusia eta entzuleen saria irabazteagatik

Amodioari, musikari, adiskidetasunari, emozioei eta gizarteari abesteko 12 kantu grabatu dituzte; horietatik bost lehen maketan grabatutakoak dira

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

**Danbaka musika lehiaketako sari nagusia eta entzuleen saria irabazteagatik *Waterpoof* diskoa kaleratu dute The Wet Band mutrikuarrek. Aitzolek, Iñigok, Endikak, Ainarak eta *Kere*-k osatzen dute taldea. Haiekin egin dugu berba.**

**Gustura zaudete diskoarekin?**

Bai, oso gustura gaude. Azken hilabeteetako lana esku artean sentitzerakoan, ukitzerakoan, egindako lana nahiko ondo egindakoa dela sentitu dugu, eta sentsazio horrek asko betetzen gaitu guztiok.

**Zer entzungo du diskoa erosten duenak?**

Disko honetan entzuleak hamabi kantau, kontu, estilo desberdin topatuko ditu. Kantu guztien oinarria rocka da, baina beste estilo batzuetako ukituak dituzte. Lehen maketan grabatu genituen bost kantuak eta zazpi berri grabatu ditugu. Erritmo geldoak eta abiadura handikoak daude. Ahalegindu gara intentsitatearekin jolasten. Zaindutako lana egiten saiatu gara. Kantu bat euskaraz eta besteak ingelesez idatzi ditugu. Amodioari, musikari, adiskidetasunari, emozioei eta gizarteari abesten diegu.

**Ahotsak eta koruak asko lantzen dituzue?**

Bai, ahotsaren melodiek garrantzi handia dute. Gure kantuak ahots melodia nagusian oinarrituta daude, oro har, eta melodiak zein errepikak koruekin janztea gustuko dugu, melodia konkretu batzuk goraipatzen laguntzen dute-eta. Gure influentzietatik ikasi dugu koruak ederrak direla eta dotore gelditzen direla.

Bestalde, kontuan izan Ainara dugula ahots goxo eta ederrarekin kantuak gidatzen.

**Gazteak izan arren, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako musikaren eragina duzue?**

Bai, erabat. Hard rocka, blues rocka, soula, funka, popa, psychodelia, rock sinfonikoa... Aipatutako hamarkadetan asko garatu, bizi eta hazi ziren estiloak ditugu gustuko. Gerora, 1990-2000ko hamarkadetan, itzelezko eragina izan zuten gustuko ditugun beste hainbat taldetan, eta gu hortik irtendako ur jarioaren korronte bat garela esan genezake.

**Taldea 2007an sortu zenuten, eta lehen diskoa grabatu duzue Danbaka lehiaketa irabaztearren. Oso azkar zoazte?**

Guk ez dugu sentsazio hori. Gure bidean goaz, poliki-poliki, talde bezala ikasten eta hazten. Badakigu, ordea, orain arte hainbat faktore eta egoera lagun izan ditugula, eta bide oparoa egiten lagundu digutela. Musikan eta bizitzan orokorrean aurrera egin beharra dago. Gure helburua orain kontzertuak eman eta gure musika zabaltzea da.

**Taldea sortu zenutenean bertsioak egiten hasi zineten. Nola gogoratzen dituzue garai haiek?**

Irribarrea datorkigu aurpegira garai haietaz hitz egitean. Barre asko, izerdi asko eta ordu asko egin genituen entsegu lokaletan gustuko genituen bertsioekin gozatzen eta ikasten. Han sortu zen The Wet Banden germena, denetariko bertsioak egiten genituelako.

Asko ikasi daiteke bertsioekin. Batez ere, gustuko dugun kanta jotzean sentitzen dugun zirrara berezia azpimarratuko genuke.

**Nola gogoratzen duzue Danbaka lehiaketa?**

Esperientzia ederra eta berezia izan zen. Kasualitatez aurkeztu ginen, eta ez genuen espero finalerako sailkatzea, eta are gutxiago bi sari irabaztea. Ezustean harrapatu gintuen, baina sariak aprobetxatu ditugula uste dugu.



### Goxotasunetik rockaren erraietara

The Wet Band taldea ezaguna da gure artean; batez ere, Danbaka lehiaketaren hirugarren edizioa irabazi zuelako.

Estraineko lanean lehiaketatik haratago joan dira eta 60ko eta 70ko hamarkadetako klasikoen esentzia duten piezak idatzi dituzte, gaur egungo ukituak gehituz. Bestalde, Mutrikuko taldearen puntu esanguratsu bat melodiak dira, eta horretan zeresan handia dute Ainararen eta Iñigoren ahots ederrek, eta orohar koroek duten tratamendu landuak ere.

XXXXXX XXXXXX

# iragarkilaburrak.com

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza salgai erdialdean. Eguzkitsua. 2004ko uztailean eraikia.Bi logela, egongela, komun bat eta sukaldea jantzita. Balkoia. Garajea aukeran. Lorea. 659 66 02 55

**Antzuola.** Beheko auzoan etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Oso eguzkitsua. 654 98 69 02

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraikigarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zerkaosteta kalean. Hirulogela, bi komun, sala, sukaldea eta ganbararekin. Berritua eta igogailuarekin. 943 79 34 54

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. 647 77 73 92

**Elgeta.** Duplex txukuna eta guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela handia, beheko suarekin. Aukera ona. Prezio negoziagarria. Ikusi nahi baduzu deitu: 685 75 18 91

**Elorrio.** Elorrion pisu bat saldu edo errentan ematen da; 3 logela, jangela, sukaldea bi bainugela eta ganbara. Altzariz jantzita, bizitzen sartzeko dena prest. 657 70 03 21 edo 94 658 32 05

**Etxarri-Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1. eskuina. Erabat jantzita. 3 argi, aluminioko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza eletrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna,despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636 15 85 35 (Bitori).

**Gasteiz.** Gorbeia kalean etxebizitza salgai. Guztiz berriztua. Bi logela, egongela handia, sukaldea (erabat hornitua), komuna, trasteroa. Kalefazio zentrala. Bi terraza 25 metro koadrokoak. Ekialdera, mendebaldera. Garajea aukeran. 246.000 euro. Telefonoa: 615 70 86 04.

**Luz Saint Sauveur.** (Frantziako Pirinioetan) etxebizitza salgai. Duplexa. Jantzia. 670 49 84 28.

**Oion** (Arabako Errioxa). 90 metroko etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Dena kanpoaldera eta hego-mendebaldera begira. Jantzia. Erdigunean. Sukaldea, hiru logela (nagusia komun eta jantzigelarekin), bi komun, 25 metroko egongela eta bi terraza. 15 metroko ganbara. Igogailua. Gasoil berokuntza indibiduala. 665 70 28 06

**Oñati.** 99 metro koadroko etxea salgai San Lorentzo auzoan. 4 logela, 2 komun, jantzitako sukaldea, egongela handia, garagea eta ganbara. Sukaldea, komunak eta lehioak berriztuak. Eguzkitsua eta bista ederrak dauzka. 670 49 60 97

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, 4 logela eta 2 komun. 372.000 euro. 659 53 87 62

**Oñati.** Oñatiko Enpresa Zientzien kanpus berritik hurbil. Estreinateko. Azken solairuan, ikuspegidun pisu tasatu berri oso eguzkitsua: 90 metro koadro gehi 20 metro koadroko garajea. Diseinu onekoa. Igogailuarekin. 224.216 euro (BEZ gabe). 943 78 27 07

**Salou** (Tarragona). Etxebizitza salgai edo errentan. Erdigunean. Hondartzatik 150 metrora. Kanpoaldera eta hegoaldera begira. Sukalde-egongela, bi logela bikoitz horma-armairuekin, komuna eta 15 metroko terraza. Aire girotua (hotza eta beroa). Jantzia. Leiho bikoitzak. Bi igogailu, igerilekua, aparkalekua. 665 70 28 06

**Valentzia.** Etxebizitza salgai hiri erdigunetik 4 kilometrora (Port Saplaya). 75 metro koadro. Sarrera, jangela-egongela, bi logela, bi komun, terraza, igogailua eta komunitateko igerilekua. Hondartzatik 200 metrora. 200.000 euro. 635 75 09 47 edo 676 51 80 58

### 102. EROSI

**Durangaldea.** Atxondoko bikote gaztea baserri bila dabil Durangaldean, erosteko prest berriztatua edo berriztatzeko. Baserri erdia ere hartuko genuke.645 72 69 37 (Usoa)

**Arrasate.** Egurrezko egitura eta gutxienez 3 logela dituen etxea erosi nahi dugu. Asier. 610 67 12 22

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 40 metro koadroko apartamentu berria erdigunean. Guztiz jantzita eta kapritxosoa. Aukera bikaina bikote edo pertsona bakarrarentzat. 943 85 06 23.

**Benicarlo** (Castello). Etxebizitza ematen da errentan hondartzako lehen lerroan. Zortzi pertsonarendako lekua. Hornitua eta erosoa. 620 41 97 53 edo 964 46 50 05

**Berriz.** Pisua alokagai Berrizen. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela handia, igogailua eta balkoia. Oso eguzkitsua. 663 39 75 88 (gauez deitu, mesedez)

**Conil (Cadiz).** Hiru apartamentu alokatzen dira Conilen (Cadizen). Garajearekin. Prezio bereziak uztailean. 656 73 34 57

**Donostia.** Alde Zaharrean, Abuztuaren 31 kalean, 2010 2011 ikasturterako etxebizitza errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Iaz berriztua. 619 41 97 10

**Durango.** Pisua alokagai. 625 70 36 88

**Eskoriatza.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea, jangela, egongela, bi komun eta trastelekua. 605 77 51 65 edo 943 71 48 65

**Luz Saint-Sauveur** (Frantziako Pirinioak). Etxebizitza ematen da errentan udarako. Deitu 670 49 84 28 telefono zenbakira

**Muxika.** Muxikan pisua alokairuan. 3 logela, sukaldea eta egongela (70 metro koadro inguru). Guztiz berritua eta bizitzen sartzeko moduan. 600 euro. Deitu 687 99 52 93 edo615 76 76 73 zenbakietara.

**Oñati.** Hiru logelako etxea errentan. Bi bainugela, sukalde jantzia, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko berogailua. Laugarren solairua, igogailuarekin. 677 21 21 62

**Otxandio.** Otxandion etxe bat alokagai daukat, herriaren erdigunean kokatua. Berria da eta prezio onean esakintzen dut. Telefonoa: 945 45 00 69.

**Oropesa (Valentzia).** Oporretako apartamentua alokagai. Aste baterako edo denboraldi baterako aproposa. hondartzarem ondoan. Bi logela eta sukalde-egongelarekin. Garajea dauka. Ingurune lasaian.619 18 77 99

**Ruesga bailaran (Kantabria).** Txalet txiki berriztatua alokatzen da. 656 73 34 57

**Torrevieja (Alacant).** Bungalowa alokatzen da Torreviejan. Hiru gela, egongela-sukaldea, solarium. Urbanizazio pribatua berdegune eta igerilekuarekin. 615 77 96 22 (Itxaso)

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Txikia eta erdigunean. 943 79 60 89

**Arrasate.** Apartamendu edo etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. 696 18 56 61

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke Bergaran. 699 09 46 26

**Durangaldea.** Laukotea etxe bila dabil, bikote bat gara txakur eta katu banaz ta etxe bila gabiz Durangaldean Pisua, baserria, etxea orokorrean errentan hartzeko prest gaude. Animaliak beti pisuan bizi izan dira ta ondo portatzen dira. Deitu 645 72 69 37 telefnora

**Eskoriatza.** HUHEZIko hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara. Deitu 635 20 25 76 zenbakira

**Mediterraneo** aldean 4-6 pertsonendako etxebizitza hartuko genuke errentan abuztuan. 653 01 76 67

**Oñati.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, igogailuarekin. 617 80 26 20

**Zaldibar.** Bikote gazte bat alokatzeko pisu bila Zaldibarren. 605 72 34 30.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655 71 77 85 edo 943 79 56 64

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 619 78 63 41 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 663 72 37 44

**Arrasate.** Pisukide bila gabiltza Arrasaten pisu bat osatzeko, maiatzetik aurrera. Deitu 608 57 97 70 telefonora

**Azkoitia.** Pisua konpartitzeko jende bila nabil. Erdigunean dago etxea eta hiru logela ditu. Etxebizitza handia da. Azkoitiarra naiz, gaztea eta arduratsua.616 931184. *sus.gabilondo@gmail.com*

**Bergara.** Bergarako 2 gaztek etxebizitza bat osatzeko pertsona baten bila dabiltza. 3 logelakoa, erdialdean. 610 31 02 61

**Bergara.** Pisua osatzeko pertsona bat behar da San Antonion. Terraza handia eta berogailua. 646 32 94 38

**Bergara.** Neska gaztea lagun bila etxebizitza edo gela osatzeko. 671 71 90 03

**Debagoiena.** Laguna behar dut etxea osatzeko. 639 94 48 65

**Donostia.** Antiguon (Lorean) hilean 375 eurogatik (+ ohiko eta agentzia gastuak) uztailaren 1etik aurrera epe luzerako (urtebete gutxienez) alokairu kontratudun gela argitsua eta garaje itxia (prezioan barne) eskaintzen da. 2 mutil langilerekin(27 eta 29 urte) partekatuko litzateke pisua. Paregabeko aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. Deitu 626 22 92 58 zenbakira.

**Gernika-Lumo.** Logela bat dugu errentan. Alokatzen dugun logelak ohe handia dauka eta maiatzetik aurrera egongo da libre. Pisua handia da eta berritua, bi logela gehiago dauzka, bi bainu, sukaldea eta saloi handia. Bertan bi neska bizi dira, eta giro atsegina aurkituko duzu. Maider 678-92 65 20. *maider.tomasena@gmail.com*

**Oñati.** Logela ematen da errentan. 688 61 57 79

### 106. BESTELAKOAK

**Lursail ez eraikigarria** erosiko nuke ortua eta zuhaitzak jartzeko Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Deitu 686 75 87 72 telefono zenbakira.

**Trukea.** Exeterren (Ingalaterrako kostaldea) dagoen etxe bat eskaintzen dugu Gipuzkoako kostaldean dagoen beste baten truke. Abuztuaren 9tik 26ra bitartean. Informazio gehiago: *terrasti@gmail.com* edo deitu 637 52 89 83 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bermeo.** Garajea salgai Kafe Antzokipean. Oinezkoaen sarreratik oso gertu eta maniobra egiteko ezinobea. Prezio paregabean. 18.900 €. Deitu 655 70 80 12 telefonora.

**Durango.** Garaje itxia salgai, 15 metro karratukoa. 618 89 65 91

**Durango.** Durangon garaje plaza bat salgai, Jesuiten parkinean. 661 12 62 81

**Durango.** 16 m2 ko garaje itxia salgai. Hizkuntza eskolaren alboan. 665 72 99 36

**Zumarraga.** 2 plaza eta sarrera automatikoa dituen garajea salgai. Egoera onean dago. Urdaneta kalea. Prezio onean. 679 23 88 67.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garaje plaza alokagai Muruetatorre 1ean. Deitu 615 75 03 13 telefono zenbakira.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan Arrasate pasealekuan edo San Andresen. Deitu 652 77 13 77 telefono zenbakira.

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. Deitu 647 24 40 54 telefonora.

**Iurreta.** Garaje plaza alokatu nahi dut Iurretan, berdin zait itxia bada. Deitu 628 00 22 19 telefono zenbakira

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Irura.** Lokala Iruran, Laskibar bailaran, N-1 ondoan. 118 $m^2$ eta 78.000 euro. 645 72 19 47

**Urretxu.** Pabilioi industriala alokatu edo saltzen da. Mugitegi industrialdean. 200 metro $m^2$ko azalera eta 8 $m^2$ko altuera. Prezio onean. 657 77 97 52

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entseatzeko aproposa. Deitu 639 15 37 32 telefono zenbakira.

**Bilbo.** Bulego bi, 30 eta 40 m2, alokatzen ditut Bilbon. 639 66 36 89 edo *miarregui@euskalnet.net*

ARRASATE

**Taberna errentan ematen da erdialdean.**

**665 70 88 30**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Txistularia behar da** ekainean ospatuko den ezkontza baterako, Debagoienean. Deitu 650 23 34 98 telefono zenbakira.

**Mendaro.** Neska edo emakume bat behar da 5 urteko ume bat zaintzeko uztailean. 600 26 36 69. Marta.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647 16 40 49

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. 619 78 63 41

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukaldelaguntzaile lanetarako. 634 84 41 94

**Arrasate.** 20 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzari lanetan aritzeko. 619 78 63 41

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606 42 64 14

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan tituluduna. 650 62 12 94

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677 73 79 59

**Bergara.** Emakume bat gertu dago zaintza lanak egiteko, kanpoan eta orduka. 697 27 25 20

**Bergara.** Paperak dituen emakumea pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 606 64 16 09B

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauez. 609 23 39 52

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

KOROSTI

INMOBILIARIA

**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 $m^2$. Berritua.
- Bidekurutzeta. 85 $m^2$. Berritua.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Masterreka 92 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 $m^2$. Berritua. Igogailuarekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. 168.283 €.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA **GARAIA**

**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,99 $m^2$ + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

Etxebila higiezinak

**9 4 3 - 4 4 6 1 6 6**

**ALOKAIRUAN**
**AMARA** Madrid etorb. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 980€
**GROS** Ramon Mª Lili. 2 logela, sukaldea, 2 bainugela. 1.000€
**ERDIALDEA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Garajea. 1.000€
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 700€

**SALMENTAN**
**ANTIGUO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 59.800.000
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Hegoa. 49.990.000
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ibaira bistak. 48.000.000
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, 2bainugela. Terraza. 51.900.000
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 40.400.000
**ERDIALDEA** 3logela, egongela, sukaldea, bainugela. 20m2 tako terraza. Txokoa. Berritua. 57.800.000
**ALDE ZAHARRA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 42.800.000
**GROS** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Kalera. 38.500.000
**GROS** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 34.940.000
**MARTUTENE** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. 22.000.000
**BIDEBIETA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 29.500.000
**BUENABISTA** Apartamentu polita. Kanpora. Trastelekua. 35.000.000
**ALTZA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Trastelekua. 25.500.000
**TRINTXERPE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Igogailua. 33.400.000
**ASTIGARRAGA** 2 logela, egongela, sukaldea, Bainugela. Kanpora. 28.990.000
**HERNANI** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. 39.950.000
**ERRENTERIA** Polita. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 35.900.000
**PASAI ANTXO** Apartamentu berritua. Polita. Igogailua. Zentroan. 29.000.000
**LEZO** Apartamentu berria erdialdean. Kanpora. Igogailua. 27.990.000
**LEZO** Etxe bifamiliarra. 100m2. Portxea. Terraza. Berritua. 46.800.000
**PASAI DONIBANE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Portura bistak. 30.990.000

**www.etxebila.net**
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

**Debagoiena.** Ostalaritzan esperientzia duen neska gertu sukaldari lanak egiteko. 648 75 07 97

**Debagoiena.** 27 urteko mutila gertu sukaldari lanetarako. 689 68 56 81

**Debagoiena.** Etxeko lanak zein garbiketak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. 637 91 46 93

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Maria Mercedes. Deitu 680 60 18 24 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat. Deitu 689 88 97 66 telefonora.

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. Deitu 606 78 35 94 telefonora.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu 696 48 42 50 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. 696 38 10 07

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689 93 58 41 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea etxez etxe pedikura eta manikura egiteko prest. 654 79 07 58

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu 696 48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 689 27 94 21

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketa lana edo jatetxeetan lan egiteko. 600 24 58 27

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaindu edo zerbitzari lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. 646 07 79 60

**Debagoiena.** Gidabaimena eta autoa propioa daukan gazte bat lan bila dabil, edozein lan egiteko gertu dago. 606 78 35 94.

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Deitu 650 23 34 98 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko lituzke. 606 72 28 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 649 71 95 21

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. 649 72 00 23

**Debagoiena.** Txistularia behar da ekainean ospatuko den ezkontza baterako.650 23 34 98

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko eta astebukaeretan lan egiteko gertu. Deitu 699 60 91 90 telefonora.

**Debagoiena.** Pintore edo tabernako zerbitzari moduan lan egiteko gertu nago. 697 88 35 62

**Debagoiena.** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. 13:00etatik aurrera libre nago. 618 09 47 87 edo 943 78 15 10

**Debagoiena.** Bertako esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko eta sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. 650 67 16 47

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. 689 88 97 66

**Debagoiena.** Emakumea gertu dago pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta baita edozein garbiketa lanetarako. 691 03 25 02

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Hilean 250 euro. Deitu 14:00etatik 15:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. 943 53 29 18

**Donostia.** Neska gaztea naiz eta Donostian zerbitzari bezala lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat. 677 41 39 21

**Durangaldea.** Esperientziadun sukaldaria eskaintzen da. 615 78 22 28. Kotxe propioa

**Durangaldea.** Umeak zaindu edo eskolara eramateko 20 urteko neska prest. 675 70 05 54 (Marta)

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Orain hasteko edo irailetik aurrera. Haur Hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda daukat, eta gaur egun Hezkuntza Bereziko ikasketak egiten ari naiz. Interesa baldin baduzu, jarri zaitez nirekikontaktuan. Arratsaldetan deitu 688 64 06 04 telefonora.

**Errezil.** Mutil gaztea eskaintzen da, txofer gisa lana egiteko. 27 urte, 4 urteko esperientziarekin txofer gisa kamioiarekin obretan. Deitu 692 25 33 39 telefono zenbakira.

**Hondarribia.** Irun edo Hondarribian, taberna edo jatetxe batean lan egingo nuke, barran edo mahaietan, egunero zein asteburuetan. 619 34 52 03

**Lakuntza.** Lakuntzako emakumea lan egiteko prest. Astean zehar, goizez, edoasteburuetan. 653 99 80 35

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635 70 07 92

**Oñati.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Trukean logela bat hartuko nuke bizitzeko. Deitu 647 83 85 77 zenbakira.

**Sakana.** Zaintza eta etxeko lanak egiteko prest. Haurrak eta edadetuak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nagoen emakumea naiz. 651 47 27 21.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: jardinero, mahastietan eta abar. 658 73 08 08

**Zarautz.** Andre euskalduna naiz, etxeko lanetarako prest nago, ostiralerako. Esperientzi handia daukat. 634 45 91 59

**Zarautz.** Zarautzen umeak zaintzeko prest nago, uztailean. Neska arduratsua naiz. 609 98 02 52.

**Zumaia.** Neska arduratsua eskaintzen da udan lan egiteko, ekainaren 1etik aurrera. Umezain, tabernari gisa edota berdin zait zer lanetan aritu. Lanerako gogo handiarekin! 688 63 33 42 (Leire)

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** DBHko 3. mailako mutikoak eskola partikularrak hartuko lituzke udan. Deitu ondoko telefonora 21:00etatik 22:00etara. 943 76 03 75.

**Bilbo.** Unibertsitari baten bila gabiltza 10 urteko haur bati ikastolako ikasgaietan laguntza emateko. Bilboko Arenalean bizi gara. Interesa izanez gero deitu: 685 75 40 94

**Durangaldea.** Turismo arloko estatistika ikasgaia lantzeko durangaldeko pertsona bat behar dut. 615 00 72 16

**Durangaldea.** Hezkuntza ikerketarekin lotura duen estatistika lantzeko pertsona behar dut. Posible balitz pedagogiako ikasle edo ikasle ohia. 695 45 21 94. Bizkaiko edozein herritarajoateko prest.

### 502. EMAN

**Antzuola.** Eskola partikularrak ematen dira Antzuolan, lehen eta bigarren hezkuntzan laguntza behar duten umeei. 678 47 43 54 edo 943 76 50 97

**Arrasate.** Esperientziadun sukaldaria zure etxean bertan janaria prestatzen irakasteko gertu. 650 40 29 69

**Azpeitia.** Arkitekturan lizentziatua naiz eta geometria deskriptiboko klase partikularrak ematen ditut. 627 62 12 21

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 654 94 87 26

**Bergara.** Bergaran ingeleseko elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. 654 94 87 26

**Debagoiena.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: Unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83

**Debagoiena.** 6-12 urte tarteko umeei udan klase partikularrak emateko prest. 635 75 05 26

**Donostia.** 2010 2011 ikasturtean eskola partikularrak emateko prest dagoen neska ikaslea. Lehen Hezkuntza eta DBHrako. Euskara, Ingelesa, Matematika... beharrezkoa denean laguntzeko. 636 01 60 15. Ainhoa.

**Durango.** Biologian lizentziatutako neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest; biologia, natur zientziak, matematika, fisika-kimika... 679 62 04 47

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664 16 02 68 edo *continental56@hotmail.com*

**Zarautz.** Lehen Hezkuntzako unibertsitate ikasketak egiten ari den neska gazte bat udaran LH edo DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. 607 18 73 97

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Ford Escort** Atlanta 1,6 16V salgai. Oso gutxi gastatzen du eta egoera onean dago. 1.000 euro. Telefonoa:. 670 49 60 97.

